


**EUSKAL HERRIKO
AGINTARITZAREN
ALDIZKARIA**



**BOLETÍN OFICIAL
DEL
PAÍS VASCO**

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet
www.euskadi.net

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko.

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

LEY 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia.

OTSAILAREN 18KO 3/2005 LEGEA, HAURRAK
ETA NERABEAK ZAINTZEKO
ETA BABESTEKOA

ZIOEN ADIERAZPENA

Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Lege honek lehenbiziko aldiz ezartzen du gai honi buruz erreferentzia-esparru orokor bat Euskal Autonomia Er-kidegoan.

Gaur arte, Euskal Autonomia Erkidego osorako era-kundeek, haurrak eta nerabeak zaintzeko esparru hone-tan, gai zehatz batzuk arautu dituzte, beren eskume-neko arloetakoak, hala nola, hezkuntzakoak edo osasu-nekoak, baina ez dute besterik egin. Beste arlo batzuk, aldiz, oso garrantzitsuak izanik ere haur eta nerabeek osaten duten gizatalde bereziki ahularen eskubideak ba-besteko eta sustatzeko, ez dira arauen bidez garatu, bi hauek, esaterako: arrisku-egoeran edo babesgabezia-egoeran dauden haur eta nerabeen arloa eta arau-haus-le adingabeei eman behar zaien gizarte eta hezkuntza laguntzaren arloa.

Lege honek hutsune juridiko hori bete nahi du, eta, horretarako, gai honetan jarduteko printzipioak eta eskumenen eta erakundeen esparrua zehaztu nahi ditu. Era berean, testu bakar batean bildu nahi ditu haur eta nerabeei ezagutzen zaizkien eskubide oinarritzko guz-tiak, dagoeneko autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko beste arau batzuetan jasota daudenak; batez ere, eskubide horiek benetan eta eraginkortasu-nez erabili ahal izan daitezen Administrazioak betetzen duen jardunaren printzipioak ezarri nahi ditu, beren be-regi ezarri ere.

Azken urteotan haurren errealitate honek gizartean izan duen bilakaerak legedi berria ontzea eskatzen du, haurrek orain duten leku berri horren araberrako lege-dia, alegia. Haurrak, gaurgero, ez dira babestu beha-rreko izakiak bakarrik, eskubidedun bihurtu dira, eta babestua izatea da, hain zuzen ere, eskubideetako bat. Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konben-tzioak –1989 azaroaren 20koak– eragin zuen, hein han-di batean, ikuspegi-aldaketa hori. Nazioarteko komu-nitateak laster erantzun dio errealitate horri –giza es-kubideen bilakaeraren historian ez da inoiz horrelako erantzun lasterrik izan–, eta horrek, aldi berean, biz-kortu egin du ikuspegi horren onarpena, hedapena eta sendotzea. Konbentzio hartan aldarrikapen huts ziren edukiak arau bihurtu dira gure gizarte eta kultura in-gurunean, eta konbentzioak aldeztzen zituen printzi-pioak, babestekoa, baliabideez hornitzekoa eta parte hartzekoa, berariazko eskubide bilakatu; eskubide ho-riexek bermatzen dute aldarrikapen huts baino ez zi-ren edukien eraginkortasuna.

Europako eta nazioarteko doktrinarik aurrerazalee-nek eta nazioarteko testu berrienek oraintsu egindako beste ekarpen batzuei esker finkatu egin da haurrek eta

LEY 3/2005, DE 18 DE FEBRERO, DE ATENCIÓN
Y PROTECCIÓN A LA INFANCIA
Y LA ADOLESCENCIA.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente Ley de Atención y Protección a la Infan-cia y la Adolescencia establece, por primera vez en la Comunidad Autónoma del País Vasco, un marco glo-bal de referencia en la materia.

Hasta el momento actual, las instituciones comunes de nuestra Comunidad Autónoma han limitado su ac-tividad legislativa en el ámbito de la atención a los ni-ños, niñas y adolescentes a la regulación de aspectos es-pecíficos en áreas de su competencia, como son por ejemplo la educación o la salud. Otros ámbitos, en cam-bio, también de fundamental importancia para la pro-moción y protección de los derechos de un colectivo es-pecialmente vulnerable como es la población infantil y adolescente, no han tenido desarrollo normativo. Es el caso de la protección a niños, niñas y adolescentes en situación de riesgo o de desamparo y de la atención so-cioeducativa a personas infractoras menores de edad.

La presente ley pretende colmar ese vacío jurídico de-finiendo los principios de actuación y el marco compe-tencial e institucional. Pretende, asimismo, reunir en un único texto el conjunto de derechos básicos que otros instrumentos normativos, de carácter autonómico, es-tatal o internacional, ya reconocen en favor de niños, niñas y adolescentes, y, en particular, legislar expresa-mente los principios que deben regir la actuación ad-ministrativa a fin de promover y defender el ejercicio efectivo de tales derechos.

La evolución que la figura del niño ha tenido en los últimos años exige articular una legislación acorde con esta nueva dimensión social. El niño ha pasado de ser objeto de protección a ser sujeto de derechos, siendo la protección uno de los derechos que le amparan. Este cambio de enfoque ha sido, en gran parte, promovido por la Convención de las Naciones Unidas sobre los De-rechos del Niño, de 20 de noviembre de 1989. La rá-pida respuesta de la comunidad internacional –única en la evolución de los derechos del hombre– ha acelerado aceptación, divulgación y afianzamiento de esta nueva perspectiva. Los contenidos declarativos han tenido en nuestro entorno sociocultural reflejo normativo, y los principios de protección, provisión y participación de-fendidos por la convención se han traducido en dere-chos específicos, cuyo contenido garantiza la efectiva aplicación de aquéllos.

Otras aportaciones recientes de la doctrina europea e internacional más progresista y de los textos interna-cionales más novedosos han contribuido a asentar esta

nerabeek gizartean duten eginkizunari ezagutza juridikoa emateko joera hori. Horien artean, nahitaez aipatu beharrekoak dira honako hauek: Europako Erkidegoan haurrek dituzten arazoei buruzko Ebazpena, Europako Parlamentuak 1991ko abenduaren 13an onartutakoa; haurren zainketari buruz Europako Erkidegoen Kontseiluak 1992ko martxoaren 31n emandako Gomen-dioa; Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak 1992ko uztailaren 1ean adopzioari buruz emandako Irizpena; Haurren Eskubideen Europar Gutuna, Europako Parlamentuak 1992ko uztailaren 8ko Ebazpenaren bidez onartutakoa; eta Adingabeak Babesteari eta Nazioarteko Adopzioaren arloko Lankidetzari buruzko Ituna, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuari buruzko Hagako Konferentzian 1993ko maiatzaren 29an onartutakoa.

Gure zuzenbide-antolamendua geroz eta hurbilago dago aipatutako ideia horietatik, azken urteotan egin-dako erreforma eta lege-garapenek haurrei eta nerabeei ematen dieten protagonismo geroz eta nabarmenagoak erakusten duen bezala.

Seme-alabatasunari, Guraso Ahalari eta Ezkontzaren Ondasun Eraentzari buruzko arloetan Kode Zibila aldatzeko maiatzaren 13ko 11/1981 Legeak berrikuntzen aroa ekarri zuen. Izan ere, legezko seme-alabatasunaren eta ez-legezkoaren arteko bereizketa ezabatua egin zuen; guraso-ahalaren erabilerari buruz berdindu egin zituen aita eta ama, eta aitatasuna ikertzeko aukera sartu zuen legedian. Tutoretzari buruzko 1983ko Legeak eraman zuen aurrerago prozesu hori, harik eta 21/1987 Legeak (azaroaren 11koa, adopzioaren arloan Kode Zibileko eta Prozedura Zibilaren Legeko zenbait artikulua aldarazi zituen) aldaketa funtsezkoak eragin zituen arte haurren eta nerabeen babesaren arloan. Lege horri zor zaizkio hauek guztiak: adopzioa familia-integraziorako bitartekotzat hartzea; familia-harrera babes-erakunde berri-tzat hartzea; haurren eta nerabeen interes gorenari, haien eskubideen babesari eta eskubide horien garap-naren bermeari lehentasuna ematea Administrazioak edo epaitegiek haiei buruz hasten dituzten jarduketa guztietan; haurren eta nerabeen babesle den aldetik mi-nisterio fiskalak dituen eskumenak gehitzea; abando-naren ordezkari babesgabeziaren figura sartzeari, eta babes-teko prozedurak arintzea, eskumena duen erakunde pu-blikoak tutoretza bere gain berehala hartzeko aukera sartuta.

Harrezkero, beste xedapen batzuk ere izan dira haurren eta nerabeen eskubideei garrantzi handiagoa aitortzeko: hala nola, 5/1988 Lege Organikoa, ekainaren 9koa, Adingabeen kontrako Erakuts Zalekeria eta Sexu Zirikatzeari buruzkoa; 4/1992 Lege Organikoa, ekainaren 5koa, Adingabeen Epaitegien Eskumena eta Prozedura Arautzean duen Legearen erreformari buruzkoa; 25/1994 Legea, uztailaren 12koa, 89/552/EEE Zuzentaraua zuzenbide-antolamenduan sartzekoa (telebista bidezko irrati-hedapeneko jardueren arloan estatu ki-deek emandako lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak koordinatzearen inguruko zuzentaraua).

tendencia al reconocimiento jurídico del papel social de la infancia y de la adolescencia. Son de obligada referencia la Resolución sobre los problemas de los niños en la Comunidad Europea, aprobada por el Parlamento Europeo el 13 de diciembre de 1991; la Recomendación del Consejo de las Comunidades Europeas sobre el cuidado de los niños y las niñas, de 31 de marzo de 1992; el Dictamen sobre la adopción, aprobado por el Consejo Económico y Social el 1 de julio de 1992; la Carta Europea de los Derechos del Niño, aprobada por el Parlamento Europeo en Resolución del 8 de julio de 1992, y el Convenio sobre Protección de Menores y Cooperación en materia de Adopción Internacional, aprobado el 29 de mayo de 1993 por la Conferencia de La Haya de Derecho Internacional Privado.

En nuestro ordenamiento jurídico se observa un acercamiento progresivo a tales planteamientos, como refleja el protagonismo cada vez más marcado que otorgan a la infancia y a la adolescencia las reformas y los desarrollos legislativos de los últimos años.

La Ley 11/1981, de 13 de mayo, de modificación del Código Civil en materia de Filiación, Patria Potestad y Régimen Económico del Matrimonio, inició el ciclo de innovaciones al suprimir la distinción entre filiación legítima e ilegítima, equiparar al padre y a la madre a efectos del ejercicio de la patria potestad e introducir la investigación de la paternidad. La Ley sobre la Tutela, de 1983, continuó el proceso, hasta que la Ley 21/1987, de 11 de noviembre, por la que se modifican determinados artículos del Código Civil y de la Ley de Enjuiciamiento Civil en materia de adopción, introdujo cambios fundamentales en el ámbito de la protección de la infancia y de la adolescencia. A ella se debe la consideración de la adopción como un elemento de plena integración familiar, la configuración del acogimiento familiar como una nueva institución de protección, la generalización de la primacía del interés superior del niño, niña o adolescente y la protección de sus derechos en orden a garantizar su desarrollo a todas las actuaciones administrativas o judiciales relacionadas con él, la ampliación de las competencias del como defensor de niños, niñas y adolescentes, la sustitución del concepto de abandono por la figura del desamparo y la agilización de los procedimientos de protección al posibilitar la asunción de la tutela automática por parte de la entidad pública competente.

Algunas disposiciones posteriores insistieron también en otorgar protagonismo a los derechos de la población infantil y adolescente: la Ley Orgánica 5/1988, de 9 de junio, sobre Exhibicionismo y Provocación Sexual en relación con las Personas Menores de Edad; la Ley Orgánica 4/1992, de 5 de junio, sobre reforma de la Ley Reguladora de la Competencia y el Procedimiento de los Juzgados de Menores, y la Ley 25/1994, de 12 de julio, por la que se incorpora al ordenamiento jurídico la Directiva 89/552/CEE sobre la coordinación de disposiciones legales reglamentarias y administrativas de los estados miembros relativos al ejercicio de actividades de radiodifusión televisiva.

Berrikiago, beste lege hau ere izan da aurrerapen nabarmenaren eragile: 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15koa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, eta Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatzekoa. Izan ere, zenbait erakunde publiko eta pribatuk araudi bat eskatzen zuten, batetik, 21/87 Legea aplikatzerakoan hautemandako hutsune batzuk betetzearren eta, bestetik, gizartean azaltzen ari ziren beharrez eta eskakizun berriei hobeki egokitu-tako lege-esparru bat eratzearen. Eta eskaera horri erantzutera etorri zen 1/1996 Lege Organikoa, arlo horretan aurrerantzean emango ziren garapen-arau berrietan eta herri-administrazioen esku-hartzeetan kontuan hartu beharko ziren jarraibideak ezarriz. Lege horren zioen adierazpenean argi azaltzen da zer asmo duen: «Haurren babes sozial eta juridikoa egokien bermatzeko modua haien autonomia sustatzea da, subjektu diren aldetik»; haurren eta nerabeen beharrezan dira gaurgero haiek dituzten eskubideen eta eman behar zaien babesaren ardatz.

Autonomia hori bermatze aldera, honako eskubide hauek jasotzen ditu lege horrek, eta berariaz garatzen: ohorerako, intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidea; informazioa eskuratzeko eskubidea; ideologia-askatasunerako eskubidea; parte hartu, elkartu eta batzarrak egiteko eskubidea; adierazpen-askatasunerako eskubidea eta entzuna izateko eskubidea. Haurrek eta nerabeek iritzia emateko duten eskubidea eta, nahikoa ezagumen izanez gero, iritzi hori kontuan har diezaizuten eskubidea ere zuzenbide-antolamendu osora hedatu dira apurka-apurka; horrek baieztatu eta sendotu egiten du Familiaren Nazioarteko Urtean aldarrikatutako demokratizazio-printzipioa, haurrekiko eta nerabeekiko harremanei dagokienez. Eta, orain, familiak kanpoko beste esparru batzuetara ere hedatu da printzipio hori. Gainera, harremanen demokratizazio hori indartu egiten da, haurren eta nerabeen garapen ebolutiboari ezar dakizkiokeen mugak era murriztatzailean interpretatu behar direlako, eta leundu ere subjektuaren adinaren arabera egokienak diren prozedurak eta interpretazio-bitartekoak erabilita.

Horrela bada, 1/1996 Legeak, Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzkoak, aldarrikatu egiten du ikuspegi-aldaketa hori, eta babes gabetasun-egoeretan jarduteko printzipioak arautzen dituenean, arau-maila ematen dio arrisku-egoeren eta babesgabezia-egoeren arteko bereizketari, babes emateko erakunde eskudunek lehendik aplikatzen zuten bereizketa horri, alegia. Orobat, lehentasuna aitortzen die arintasun eta berehalakotasun printzipioei administrazio eta auzi prozedura guztietan; familia-harreraren hainbat mota antolatzen ditu, babesgabetasunaren diren haur eta nerabeek ekarri ohi dituzten beharrezan askotarikoei erantzuna eman nahian, eta, adopzioaren arloan, haur edo nerabea seme edo alabatzat hartu nahi dutenen egokitasunaren eskakizuna sartzen du.

2000. urtearen hasieran, Adingabeen Erantzukizun Penal Arazten duen urtarilaren 12ko 5/2000 Lege

En fechas más recientes, la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del menor, de modificación parcial del Código Civil y de la Ley de Enjuiciamiento Civil, ha supuesto el último gran avance. En respuesta a las peticiones manifestadas por instituciones públicas y privadas en orden a solicitar una normativa que colmara las lagunas detectadas en el curso de la aplicación de la Ley 21/87 y que ofreciera un marco legal de actuación más acorde con las nuevas necesidades y demandas de la sociedad, establece las pautas de actuación que, en adelante, deberán presidir los desarrollos normativos en la materia y la intervención de las administraciones públicas. La exposición de motivos de la Ley 1/1996 expresa claramente su espíritu al declarar que «la mejor forma de garantizar social y jurídicamente la protección de la infancia es promover su autonomía como sujetos»; las necesidades de niños, niñas y adolescentes se convierten así en eje de sus derechos y de su protección.

En garantía de esa autonomía, recoge y desarrolla expresamente el derecho al honor, a la intimidad y a la propia imagen; el derecho a la información; a la libertad ideológica; a la participación, asociación y reunión; el derecho a la libertad de expresión y el derecho a ser oído. Extendido progresivamente a todo el ordenamiento jurídico en todas aquellas cuestiones que pueden afectar a los niños, niñas y adolescentes, el derecho a emitir su opinión y a que esta opinión se tenga en cuenta cuando tuviera suficiente juicio confirma y afianza el principio de democratización que, en el marco de las relaciones con los niños, niñas y adolescentes, ya proclamara el Año Internacional de la Familia y cuya ampliación alcanza ahora ámbitos extrafamiliares. Esta democratización de las relaciones se ve reforzada por el hecho de que las limitaciones que pudieran derivarse del desarrollo evolutivo deben interpretarse restrictivamente y paliarse recurriendo a los procedimientos y a los instrumentos de interpretación más adecuados a la edad del sujeto.

Proclamado este cambio de orientación, al regular los principios de actuación en situaciones de desprotección social, la Ley 1/1996, de Protección Jurídica del Menor, eleva a rango normativo la distinción entre situaciones de riesgo y situaciones de desamparo que las administraciones públicas competentes en materia de protección ya venían aplicando en la práctica. Asimismo, otorga prioridad al principio de agilidad e inmediatez en todos los procedimientos administrativos y judiciales, articula diferentes tipos de acogimiento familiar, con objeto de dar respuesta a la diversidad que se observa en las necesidades de los niños, niñas y adolescentes en situación de desprotección, e introduce, en materia de adopción, el requisito de idoneidad de los adoptantes.

A comienzos del año 2000, la Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, Reguladora de la Responsabilidad Pe-

Organikoak osatu egin zuen lege-esparru hori, erantzun egin baitzion 4/1992 Lege Organikoak (ekainaren 5ekoa, Adingabeen Epaitegien Eskumena eta Prozedura Arautzen duen Legearen erreformaren gainekoa) ezarritako beharkizunari eta 10/1995 Lege Organikoak (azaroaren 23koa, egun indarrean dagoen Zigor Kodearena) 19. artikuluan ezarritakoari. Horrez gain, kontuan hartu beharrekoak dira abenduaren 22ko 7/2000 Lege Organikoak (azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoak, Zigor Kodearena, eta urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak, Adingabeen Erantzukizun Penal Arautzen duena aldatzeko Legea) terrorismo-delituei buruz egin dituen aldaketak.

Beharrezkoa zen Euskal Autonomia Erkidegoak gai hau arau bidez garatzea, bere eskumenen arabera garatu ere; izan ere, Autonomia Estatutuak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko Harremani buruzko Legeak eta Gizarte Zerbitzuen Legeak esleitzen dizkiote gai horren gaineko eskumenak. Hor ditu, oinarri, lege-adituen iritzi horiek, nazioarteko eta Estatuko legegintza-joera horiek eta herri-administrazioen praktika horiek, eta, Euskal Autonomia Erkidegoak garapen hori egiten badu, Haurren Eskubideen gaineko Konbentzioaren aplikazioa zaintzerakoan Nazio Batuen erakundeak emandako gomendioei erantzun ahal izango die.

Lege hau bat dator indarrean dagoen eskumen-ereduarekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek beren eskumenak erabiltzeko orduan begiratu behar dituzten printzipioak ezartzen ditu, hala edukiaren aldetik nola prozeduraren aldetik begiratu beharrekoak, eta, beharrezko eta bidezko denean, beste lege batzuen aipamena egiten du, kontuan hartzeak diren zigor arloko, prozedura arloko eta zibileko legeena, alegia. Batzuetan egokitu egin da Estatuko araudia lege honen egituraren eta helburuaren arabera, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen-banaketagatik, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta ez beste inorenak diren beste eskumen batzuen erabilerarekin duen zerikusiatatik eta arrazoi teleologiko eta sistematikoengatik. Dena den, egokituta artikuluko horiek, edukian, Estatuak arlo horretan emandako arauari jarraitu behar diote, une bakoitzean indarrean dagoen arauari.

Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutako eskumen-arlo hauexek dira lege honen eremuaren osagarri: osasuna, hezkuntza, polizia, barne-merkataritza, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa eta publizitatea.

Gizarte-zerbitzuak dira baliabide, jarduera, prestazio edo ekipamendu multzo bat, eta lagundu egiten dute gizabanakoek eta taldeek komunitatean behar duten ongizatea eta garapena sustatzen, bai eta gizabanakoa eta talde horiek gizarte-ingurunera egokitzen ere. Bada, badira zenbait eskumen gizarte-zerbitzu horien oinarri, eta horiek dira bereziki kontuan hartzeak.

nal de los Menores, completa el marco normativo respondiendo a la necesidad impuesta por lo establecido en la Ley Orgánica 4/1992, de 5 de junio, sobre reforma de la Ley Reguladora de la Competencia y el Procedimiento de los Juzgados de Menores, y en el artículo 19 de la vigente Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal. En este sentido, conviene tener en cuenta las últimas modificaciones operadas mediante la Ley Orgánica 7/2000, de 22 de diciembre, de modificación de la Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal, y de la Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, Reguladora de la Responsabilidad Penal de los Menores, en relación con los delitos de terrorismo.

Era necesario que, sobre esta base doctrinal, estas tendencias legislativas internacionales y estatales, y la práctica de las administraciones públicas, la Comunidad Autónoma del País Vasco desarrollara la actividad normativa que corresponde a las competencias que le vienen atribuidas por el Estatuto de Autonomía, la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos y la Ley de Servicios Sociales, respondiendo así a las recomendaciones planteadas desde la Organización de las Naciones Unidas en el marco del seguimiento de la aplicación de la Convención sobre los Derechos del Niño.

La presente ley, de acuerdo con el modelo competencial vigente, establece los principios sustantivos y de procedimiento que deben observar las distintas administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco llamadas a ejercer sus competencias, haciéndose las remisiones legales pertinentes en materia de legislación civil, penal y procesal. El respeto al ámbito de distribución competencial entre el Estado y la Comunidad Autónoma del País Vasco, la confluencia con el ejercicio de competencias exclusivas de la Comunidad Autónoma del País Vasco y razones de naturaleza teleológica y sistemática han exigido en ciertas ocasiones adaptaciones de la mencionada regulación estatal a la estructura y finalidad de la presente ley. En cualquier caso, el contenido recogido en los artículos concernidos debe atenerse a la norma estatal que en cada momento rija en la materia.

La ley se sitúa en el marco de las competencias que el Estatuto de Autonomía otorga a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia, entre otras, de sanidad, educación, policía, comercio interior, defensa de las personas consumidoras y usuarias y publicidad.

Especial consideración merecen las competencias que fundamentan los servicios sociales como conjunto de recursos, actividades, prestaciones o equipamientos que contribuyen a promover el bienestar y el desarrollo de los individuos y los grupos en la comunidad y su adaptación al entorno social, destacándose la atención y protección a la infancia y a la adolescencia como un capí-

Hor, haurrak eta nerabeak zaindu eta babestekoa atal funtsezkoa da gizarte-ongizaterako politketan. Egin-kizun horri begira Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumen esklusiboen artean hauek dira nabarmen-tzekoak: gizarte-laguntza (Euskal Autonomia Estatu-tuaren 10.12 artikulua); ongintzako eta gizarte-lagun-tzako fundazio eta elkarten antolaketa, araubidea eta jardunbidea (10.13 artikulua); adingabeak babestu eta tutoretzapean edukitzeko eta bergizarteratzeko erakun-de eta etxeen antolaketa, araubidea eta jardunbidea (10.14 artikulua); aisialdia eta jolasa (10.36 artikulua), garapen komunitarioa, emakumeen aldeko politikak eta haur, nerabe eta adinduen aldeko politikak (10.39 artikulua).

Lege honek, gure Autonomia Erkidegoaren erakun-de-antolaketa berezia kontuan hartuz, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen arteko Harremani buruzko Legeari men eginez, errespetatu egi-ten ditu lurralde historiko bakoitzeko foru-organoe-ber beren lurralde horietan dauzkaten egikaritze-eskume-nak, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek gai hauetan ematen duten legedia egikaritzeko eskumenak, esan nahi da, hala nola, gizarte-laguntza, garapen ko-munitarioa, emakumeen aldeko politikak, haurren eta gazteen aldeko politikak, adinduen aldeko politikak, ai-sia eta jolasa. Eta, errespetatu ere, Euskal Autonomia Erkidegoak zuzeneko ekintzara jotzeko eskubidea ba-du ere.

Hain zuzen ere, adingabeak zaindu eta babesteko es-kumenak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-admi-nistrazioen artean banatzeko, Gizarte Zerbitzuen urri-aren 18ko 5/1996 Legeari jarraituz egin da, lege horrek gizarte-zerbitzuetan egiten duen bereizketaren irizpi-deari (oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzu espezializatuak) eta Autonomia Erkidegoko Adminis-trazioaren, Foru Administrazioaren eta Udal Adminis-trazioaren artean egiten duen eskumen-banaketari. Bes-te alde batetik, adingabeen epaitegiek erabakitako neu-riak egikaritzeko eskumena, behingoz, Euskal Auto-nomia Erkidegoari esleitzen dio lege honek, Adinga-been Erantzukizun Penal Arazten duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa aplikatuz.

Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Le-ge honek xede hirukoitza du:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egoi-liarrak zein pasadizokoak diren haur eta nerabeei ber-matzea zuzenbide-antolamenduan ezagutzen zaizkien eskubideak erabili ahal izango dituztela (Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konben-tzioak, Haurren Eskubideen Europar Gutunak eta zu-zenbide-antolamendu osoak ezagutzen dizkieten esku-bideak, esan nahi da).

b) Haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak edo haiek zaintzeko eta babeste-ko esku-hartzeak zein esparrutan egin behar diren ze-

tulo esencial en las políticas de bienestar social. En este sentido, destacan las competencias exclusivas de la Comunidad Autónoma vasca en materia de asistencia social (artículo 10.12 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco), fundaciones y asociaciones de carácter benéfico asistencial (artículo 10.13), organización, régimen y funcionamiento de las instituciones y establecimientos de protección y tutela de menores y reinserción social (artículo 10.14), ocio y esparcimiento (artículo 10.36), desarrollo comunitario, condición femenina y política infantil, juvenil y de la tercera edad (artículo 10.39).

Considerando la peculiaridad de la organización institucional de nuestra Comunidad Autónoma en virtud de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, esta ley respeta las competencias de ejecución, dentro del territorio histórico correspondiente, de la legislación de las instituciones comunes en materia de asistencia social, desarrollo comunitario, condición femenina, política infantil y juvenil, tercera edad, ocio y esparcimiento que corresponden a los respectivos órganos forales, sin perjuicio de la acción directa de las instituciones comunes del País Vasco.

Precisamente el criterio de clasificación de los servicios sociales en servicios sociales de base y servicios sociales especializados, que deriva de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, y la distribución de competencias que la misma realiza a favor de las administraciones autónoma, foral y municipal, se han considerado en esta ley como base para la distribución de competencias en materia de atención y protección de personas menores de edad entre las distintas administraciones públicas del País Vasco. Por otro lado, esta ley atribuye definitivamente a la Administración autónoma del País Vasco la competencia de ejecución de las medidas adoptadas por los juzgados de menores, en aplicación de la Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, Reguladora de la Responsabilidad Penal de los Menores.

La presente Ley de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia tiene un triple objeto:

a) Garantizar a los niños, niñas y adolescentes, residentes o transeúntes en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el ejercicio de los derechos que les reconocen la Constitución, la Convención de las Naciones Unidas sobre los Derechos del Niño, la Carta Europea de los Derechos del Niño y el ordenamiento jurídico en su conjunto.

b) Establecer el marco de actuación en el que deben ejercerse las actividades de fomento de los derechos y del bienestar de la infancia y de la adolescencia, así co-

darritzea, familian eta gizartean behar duten garapena bermatzearren.

c) Babesgabezia-egoeran edo arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko eginkizunaren jardute-printzipioak zedarritzea, bai eta eskumenen eta erakundeen esparrua ere; orobat, arau-hausle adingabeekin egin beharreko esku-hartzearen esparrua.

Zortzi titulutan dago egituratuta lege-testua, eta arautzen duen arlo bakoitzean jarduteko esparru orokor bat ezarri nahi du.

Lehenbiziko tituluko xedapen orokorretan legearen joera azaltzen da, izan ere, atzean uzten du «adin txikiak» terminoa, gurasokeria kutsua baitzerion, eta horren orde z «adingabeko pertsonak», «haur eta nerabeak», edo «hautzaro eta nerabezaro» aukeratu ditu. Haurren eta nerabeen interes gorena, haien eskubideen babesa eta eskubide horien garapenaren bermea oinarritzko printzipiotzat hartu dira adingabeekin zerikusia duten erabaki eta jarduketa pribatu edo publiko guztietan kontuan har daitezten; era berean, esku-hartzeetan aintzat hartu beharreko printzipio orokorrak ere ezartzen dira. Zehatzago esanda, legeak, haur eta nerabeen eskubideei buruz, hau aldarrikatzen du: eskubidea dute beren eskubideei buruzko argibideak jasotzeko; eskubidea dute beren norbanakoaren eskubideak eta eskubide kolektiboak errespetatuta ditzaten, batez ere parte hartzeko; eskubidea dute kalte egin diezaieketen ekintza edo ez-egite guztietatik babestua izateko, betiere, familiaren ingurunean jarraitzeari lehentasuna emanez; eskubidea dute berentzat hartzen diren neurriak batez ere gizarte eta hezkuntza laguntza emateko izan daitezten. Era berean, lehenbiziko titulu honetan, legeak gizartea sentsibilizatu nahi du haurren bazterketa eta esplotazioa eta haien kontrako abusu eta tratu txarrak saihesteko.

Legeak nabarmendu egin nahi du adingabeko pertsonen eskubidea dutela, nahikoa ezagumen dutenean, beren iritzia entzun dakien; eta onartzen du adingabek badutela gaitasuna, denborarekin haziz doana, beren eskubideak erabiltzeko. Horregatik, osasunaren babesaren arloan duten eskubideen artean, beren baimena ematekoa edo ukatzekoa aipatzen da: 41/2002 Legeak (azaroaren 14koa, Gaixoaren Autonomia eta Osasunari buruzko Informazioaren eta Dokumentazioaren arloko Eskubideak eta Betebeharrak Arautzen dituen Oinarrizko Legea) hamasei urte bete dituztenei ezagutzen dien eskubide bera, alegia.

Era berean, betebeharrak irmoa ezartzen zaie organismo eta erakunde publiko eta pribatuei elkarlanean jardun dezaten, legearen aplikazio-esparru guzti-guztietan; hartara, haur eta nerabeak zaintzeko betebeharrak modu koherentean eta antolatuan burutu ahal izango dute, eta horrek babesgabetasun-egoerei egokiago erreparatzea ahalbidetuko du, esku-hartzeak eraginkorragoak egingo ditu eta baliabideen erabilera arrazoizkoagoa.

mo las intervenciones dirigidas a su atención y protección, en orden a garantizar su desarrollo en los ámbitos familiar y social.

c) Definir los principios de actuación y el marco competencial e institucional en el ámbito de la protección a niños, niñas y adolescentes en situación de riesgo o de desamparo, así como en el de la intervención con personas infractoras menores de edad.

Estructurado en ocho títulos, el texto legal pretende establecer el marco global de actuación en cada uno de los ámbitos que regula.

Las disposiciones generales del título I marcan la orientación de la ley, relegando implícitamente el tan polémico concepto de «menores», de connotaciones paternalistas, y optando por los de «personas menores de edad», «niños, niñas y adolescentes», o «infancia y adolescencia». Se adopta el principio del interés superior de los niños, niñas y adolescentes y la protección de sus derechos en orden a garantizar su desarrollo como principio inspirador básico de todas las decisiones y actuaciones privadas o públicas que guarden relación con ellos, y se estipulan los principios generales que necesariamente deben informar las intervenciones. En particular, la ley proclama el derecho de los niños, niñas y adolescentes a ser claramente informados de sus derechos; a ver respetados sus derechos individuales y colectivos, con referencia específica a su derecho a la participación; a ser protegidos contra cualquier acción u omisión que pudiera perjudicarles, dando prioridad siempre en tales casos al mantenimiento en el entorno familiar; a que las medidas que se adopten a su respecto presenten un carácter eminentemente socioeducativo. Asimismo, la ley subraya la necesidad de sensibilizar a la sociedad con objeto de prevenir la marginación y la explotación infantil, así como los abusos y malos tratos.

El texto incide en el derecho de las personas menores de edad a ser oídas cuando tengan suficiente juicio, y asume la capacidad progresiva de éstas de edad para el ejercicio de sus derechos. En este sentido, se recoge, con respecto a sus derechos en el ámbito de la protección a la salud, la facultad para prestar o denegar consentimiento reconocida a las personas que hayan cumplido dieciséis años en la Ley 41/2002, de 14 de noviembre, Básica Reguladora de la Autonomía del Paciente y de Derechos y Obligaciones en materia de Información y Documentación Clínica.

Se insiste igualmente, en todos los ámbitos de aplicación de la ley, en la obligación de colaboración interinstitucional que se impone a los organismos, entidades e instituciones públicas y privadas, a fin de proporcionar a la población infantil y juvenil una atención coherente y organizada, que no sólo facilite la detección de situaciones de desprotección, sino que también permita intervenciones más eficaces y más acordes con una utilización racional de los recursos.

Legearen II. tituluak haur eta nerabeen oinarrizko eskubideak jasotzen ditu, bai eta arlo hauetan guztietan dituztenak ere: osasunean, hezkuntzan, kulturaren, aisialdian, ingurumenean, gizartearen parte-hartzean eta gizarte-integrazioan; horrela, lege hau aplikatzeko zeregina biltzen ditugu herri-administrazio guztiak eta arlo horietan jarduten duten erakunde pribatu guztiak.

Ondoren, III. tituluak arrisku edo babesgabezia egoeretan dauden haur eta nerabeei eman beharreko babesaren arloan esku-hartzeko esparrua zedarritzen du.

Administrazioak eman behar duen babesari buruz, jarduteko orduan aintzat hartu beharreko printzipioak azaltzen ditu legeak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren (Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatu zituen) filosofiarekin bat datozenak; era berean, prozeduran kontuan hartu behar diren jarraibideak arautzen ditu, arauaren manuak aplikatzean nolabaiteko berdintasuna izan dadin eta berdintasun-printzipioa berma dadin. Administrazioak har ditzakeen neurriak arautzerakoan, familiarengandik bereiztea dakarten neurriak xehe-xehe arautu ditu, hala nola, familia-harrera, egoitzaz-harrera eta adopzioa; orobat, kalitatea bermatzeko neurriak sartu ditu, hala nola, baimen-prozedurak, erregistroak, homologazioa eta zerbitzuen eta zentroen ikuskaritza eta ebaluaketa; gainera, bitarteko material eta funtzionalen eta giza baliabideen eskakizunak arautzeko erantzukizuna Administrazio autonomoaren gain utzi du; horrez gain, egoitzetan harrera egin zaien haur eta nerabeen eskubide eta betebeharrak aldarrikatu ditu.

Adopzio-kasuei dagokienez, legeak seme-alabatasun biologikoa ezagutzeko eskubidea ematen du, Haurren Eskubideen Konbentzioan ezarritakoarekin eta Haurren Babesari buruzko eta Nazioarteko Adopzioaren arloko Lankidetzari buruzko Hagako 1993ko Itunean ezarritakoarekin bat etorritik.

Arau-hausle adingabeei gizartearen eta heziketaren arloan eskaini beharrekoari dagokionez, IV. tituluak jarduteko printzipioak ezartzen ditu, bai eta adingabeen epaileak emandako neurriak betearazteko moduak ere, Adingabeen Erantzukizun Penal Arautzen duen urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoari jarraituz; gainera, arreta berezia jartzen du barneratze-neurrietan, eta, kasu honetan ere, bermeak ezartzen ditu laguntzaren kalitatearen alde eta arau-hausle adingabearen eskubideen errespetuaren alde. Horretarako, Autonomia Erkidegoko Administrazioak barnetegietako bitarteko material eta funtzionalen eta giza baliabideen eskakizunak arautuko dituela aurreikusten da, eta berariaz aipatzen dira barneratutako nerabeen eskubideak eta betebeharrak.

Erakunde-antolaketa arautzen du V. tituluan, eta Haurren eta Nerabeen defendatzailearen figura sortzea aurreikusten: haren eginkizunen artean legoke haurren

El título II recoge los derechos básicos de la población infantil y adolescente, así como sus derechos en los ámbitos de la salud, la educación, la cultura, el tiempo libre, el medio ambiente, el entorno, la participación social y la integración social, implicando de esta manera en la aplicación de la ley a todas las administraciones públicas y a todas las entidades privadas que participan activamente en estos ámbitos.

El título III establece el marco de intervención en materia de protección a niños, niñas y adolescentes en situación de riesgo o de desamparo.

Con referencia a la acción protectora de la Administración, el texto explicita principios de actuación acordes con la filosofía de la Ley Orgánica 1/1996, de Protección Jurídica del Menor, de modificación parcial del Código Civil y de la Ley de Enjuiciamiento Civil, regula las pautas procedimentales con objeto de alcanzar cierta uniformidad en la aplicación de los preceptos de la norma y garantizar así el cumplimiento del principio de igualdad. En la regulación de las medidas que puede adoptar la Administración, se incide con detalle en aquellas que implican una separación del medio familiar, es decir, el acogimiento familiar, el acogimiento residencial y la adopción, introduciendo garantías de calidad mediante la aplicación de procedimientos de autorización, registro, homologación, inspección y evaluación de servicios y centros, la atribución a la Administración autónoma de la responsabilidad de regular los requisitos materiales, funcionales y de personal que deben reunir los centros residenciales y la proclamación de los derechos y obligaciones de los niños, niñas y adolescentes residentes.

Con relación a los casos de adopción, la ley establece el derecho a conocer la filiación biológica de conformidad con lo establecido en la Convención de los Derechos del Niño así como en el Convenio de La Haya, de 1993, sobre Protección del Niño y Cooperación en materia de Adopción Internacional.

En el ámbito de la atención socioeducativa a personas infractoras menores de edad, recogida en el título IV, se establecen igualmente los principios de actuación y las modalidades de ejecución de las medidas dictadas por el juez de menores, atendiendo al tenor de la Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, Reguladora de la Responsabilidad Penal de los Menores, con especial incidencia en las medidas de internamiento, e introduciendo, también en este caso, garantías tendentes a favorecer la calidad de la atención y el respeto de los derechos de las personas infractoras menores de edad. A tales efectos, se prevé que la Administración autónoma regule los requisitos materiales, funcionales y de personal que deberán reunir los centros de internamiento, con mención expresa de los derechos y obligaciones de los adolescentes internados.

Al regular la organización institucional en su título V, la ley prevé la creación de la figura de la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia, estableciendo

eta nerabeen eskubideak sustatzea eta gizartea eskubide horietaz ohartaraztea.

Legeak, gainera, Haurren eta Nerabeen Behatokia sortzea aurreikusten du; behatoki horrek haurren eta nerabeen bizi-baldintzak aztertzea eta haiek zaintzen dituzten erakundeei aholku ematea izango ditu eginkizun.

Azkenik, legeak indartu egiten du Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialak Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren barruan duen eginkizuna, adingabeen zainketa eta babesean dabiltzan erakunde publikoek eta gizarte-eragileek parte hartzeko berariazko forotzat eratzten baitu, bai eta lege honek ukitzen dituen gaietan Eusko Jaurlaritzak eman edo proposatu beharreko lege-egitasmoei, xedapen orokorrei eta erregelamenduei buruzko kontsulta eta aholkularitza organotzat ere.

VI. tituluan haurren eta nerabeen zainketan eta babesean jarduten duten herri-administrazioen artean eskumenak nola banatuko diren zehazten da.

VII. tituluan, herri-administrazioen eta erakunde pribatuen arteko harremana arautzen du, eta gizarte-ekimena sustatzeko printzipioa jasotzen du, Gizarte Zerbitzuen Legean jasotako bera.

Amaitzeko, VIII. tituluan, zehatzeko araubidea zehazten du legeak: arau-haustekak, zehapenak eta aplikatzekoa den prozedura zehazten dira bertan. Sistema honen bitartez, hau da erdietsi beharrekoa: legearen printzipio eta manuak benetan aplikatzea, eta eskubideak ez daitezela urra, eskubide horien aldarrikapen-eduki hutsa gainditu egin behar baita.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Aplikazio-eremua eta helburua.

Lege honen helburua da haurrak eta nerabeak zaindu eta babestea, bermea eskainiz beren eskubideak erabili eta erantzukizunak bete ahal ditzaten. Zehazki esanda, hauek dira helburuak:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egoiliarak zein pasadizokoak diren haur eta nerabeei hau bermatzea: Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Haurren Eskubideen Europar Gutunak eta zuzenbide-antolamendu osoak ezagutzen dizkieten eskubideak erabili ahal izango ditzutela.

b) Haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak edo haiek zaintzeko eta babesteko esku-hartzeak zein esparrutan egin behar diren ezartzea, haurrek eta nerabeek familiaren eta gizartearen ingaruneetan behar duten garapena bermatzearen.

entre sus funciones las de sensibilización y promoción social de los derechos de la infancia y la adolescencia.

El texto opta, así mismo, por la creación de un Observatorio de la Infancia y la Adolescencia, dedicado fundamentalmente al estudio de las condiciones de vida de los niños, niñas y adolescentes y al asesoramiento de las entidades implicadas en su atención.

Por último, la ley consolida la función de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia, en el seno del Consejo Vasco de Bienestar Social, como foro específico de participación de las instituciones públicas y agentes sociales implicados en la atención, seguimiento y protección de las personas menores de edad y como órgano de consulta y asesoramiento respecto de los proyectos de ley, disposiciones generales y reglamentos que hayan de ser propuestos o dictados por el Gobierno Vasco en los aspectos a que se refiere la presente ley.

El título VI contiene la distribución competencial entre las distintas Administraciones públicas que intervienen en la atención y protección a la infancia y a la adolescencia.

En el título VII, la ley regula la relación de la Administración pública con las entidades privadas, recogiendo el principio de fomento de la iniciativa social adoptado por la Ley de Servicios Sociales.

Finalmente, la ley incorpora en su título VIII un régimen sancionador, que determina las infracciones, las sanciones y el procedimiento aplicable. Con este sistema se pretende garantizar la aplicación real de los principios y preceptos legales y la no vulneración de unos derechos cuyo contenido puramente declarativo es imprescindible trascender.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Ámbito de aplicación y objeto.

La presente ley tiene por objeto la atención y protección a la infancia y la adolescencia en garantía del ejercicio de sus derechos y de sus responsabilidades. En particular, tiene por objeto:

a) Garantizar a los niños, niñas y adolescentes que residan o se encuentren en territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco el ejercicio de los derechos que les reconocen la Constitución, la Convención de las Naciones Unidas sobre los Derechos del Niño, la Carta Europea de los Derechos del Niño y el ordenamiento jurídico en su conjunto.

b) Establecer el marco de actuación en el que deben ejercerse las actividades de fomento de los derechos y del bienestar de la infancia y la adolescencia, así como las intervenciones dirigidas a su atención y protección, en orden a garantizar su desarrollo en los ámbitos familiar y social.

c) Babesgabezia-egoeran edo arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko arloan eta arau-hausle adingabeekin egin behar diren esku-hartzeen arloan jarduteko printzipioak zehaztea, bai eta eginkizun horretan eskumenera eta erakundeen esparrua mugatzea ere.

2. artikulua.— Nori eragiten dion.

Lege honen eta bera garatzen duten xedapenen ondorioetarako:

a) Adingabeak izango dira Kode Zibilak ezarritako adin nagusira iritsi ez direnak, baldin eta emantzipatuta ez badaude edo aplikatzekoa zaien legean ezarritakoaren ondorioz adin nagusitasuna eskuratu ez badute. Arau-hausle adingabeei buruzko xedapenetan, Zigor Kodeak ezarritakoa hartuko da adingabetasuna.

b) Haurtzaroa izango da pertsona jaiotzen denetik hamabi urtera arteko aldia, eta haurrak izango dira bizitzaren aldi horretan dauden pertsonak.

c) Nerabezaroa izango da hamahiru urtetik legeak ezarritako adin nagusira edo emantzipaziora iritsi arteko aldia, eta nerabeak izango dira bizitzaren aldi horretan dauden pertsonak.

3. artikulua.— Zuzeneko ekintza.

Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeei dagokie haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko arloan arauak garatzea eta zuzeneko ekintza gauzatzea.

4. artikulua.— Oinarrizko printzipio gidariak.

1.— Bai agintariak eta zerbitzu publikoak bai herritarrek, batez ere lanbidea edo betetzen duten eginkizuna tarteko haur edo nerabe bat arrisku edo babesgabezia egoera batean egon daitekeela ikusten dutenek, haur edo nerabeari laguntza berehala eskaintzeko betebeharra dute, eta, beren eskumenean badago, jarduteko, edo bestela, eskumena duten agintariak edo haien agente gertukoenei jakinarazteko; orobat, adingabearen legezko ordezkariak jakinarazi behar dizkiete egitateak, edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari ere bai.

los o las profesionales a fin de preservar el interés superior de las personas menores de edad y la protección de sus derechos en orden a garantizar su desarrollo. En el marco de las actuaciones de protección se adoptarán medidas de la misma naturaleza con respecto a la selección de las personas voluntarias que intervengan en la atención a personas menores de edad.

k) En toda intervención se procurará contar con la colaboración del niño, niña o adolescente y de su familia, y no interferir en su vida escolar, social o laboral.

l) Se procurará sensibilizar a la población ante situaciones de indefensión de los niños, niñas y adolescentes.

m) Las administraciones públicas competentes promoverán y facilitarán el acogimiento familiar y la adopción. Asimismo, promoverán la participación y la solidaridad social.

n) Se aplicarán los principios de actuación previstos con carácter general en la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales.

SECCIÓN 2.ª ACTUACIONES EN SITUACIONES DE RIESGO Y DE DESAMPARO

Artículo 49.— Actuaciones de protección.

1.— A efectos de la presente ley, la protección de los niños, niñas y adolescentes comprende el conjunto de medidas y actuaciones destinadas a prevenir e intervenir en situaciones de riesgo y de desamparo en las que puedan verse involucrados y tendentes a garantizar su desarrollo integral y a promover una vida familiar normalizada, primando, en todo caso, el interés de la persona menor.

2.— La determinación por parte de los servicios sociales de base y de los servicios territoriales especializados de las situaciones de riesgo y de desamparo se realizará mediante la aplicación de instrumentos técnicos validados al efecto, en los términos previstos en la disposición final primera.

Artículo 50.— Obligaciones de las autoridades y de los ciudadanos.

1.— Tanto las autoridades y servicios públicos como las personas físicas, en particular aquellas que por su profesión o función detecten una situación de riesgo o de posible desamparo de un niño, niña o adolescente, tienen obligación de prestar la atención inmediata que la persona menor de edad precise, de actuar si corresponde a su ámbito competencial o, en su caso, de comunicarlo a las autoridades competentes o a sus agentes más próximos; además, deberán poner los hechos en conocimiento de los representantes legales de la persona menor de edad, o, cuando sea necesario, del ministerio fiscal.

2.– Eskumena duten administrazioek agintarien, zerbitzu publikoen eta pertsona fisikoen segurtasuna zainduko dute, batez ere lanbidea edo betetzen duten eginkizuna tarteko adingabearekin harremanetan direnena, bereziki gatazkatsuak diren prozedura administratiboetan.

Era berean, eskumena duen fiskalari baimena eska dakioke prozeduretan norberaren nortasuna ezkutuan edukitzeko eta prozeduraren aplikazioak legezko interesei kalterik ez eragiteko moduan parte hartzeko.

3. ATALA
ARRISKU-EGOERETAN JARDUTEKO
JARRAIBIDEAK

51. artikulua.– Arrisku-egoeraren kontzeptua.

Arrisku-egoerak dira haurren edo nerabearen garapen pertsonal edo sozialari kalte egin diezaioketen egoerak, babesgabeziatzat jo ezin daitezkeenak eta, hortaz, legeak agindutako tutoretza ezartzea eskatzen ez dutenak.

Arrisku-egoera agertuko da, gizartearen, familiaren edo adingabearen beraren gorabeheren ondorioz, adingabearen garapena eta ongizatea mugatuta edo kalte-tuta gertatzen badira eta gurasoek, tutoreek edo zain-tzaileek ez badituzte beren gain hartzen haurren edo nerabearen garapen egokia bermatu ahal izateko erantzukizunak, edo erantzukizun horiek osorik beren gain ez hartzea gerta badaiteke. Betiere egoera hori babesgabetasun-egoera bilakatzeko bezain larria ez bada edo haurra edo nerabea familia-gunetik bereizteko adina-koa.

52. artikulua.– Arrisku-egoeretako jarduketak.

1.– Arrisku-egoeretan, haurrak eta nerabeak babes-teko arloan eskumena duten herri-administrazioek haien eskubideak bermatu egin behar dituzte, bai eta haien beharrezanetan laguntza emango dela ziurtatu ere. Arlo honetan egiten diren jarduketak publikoek haurren, nerabeen eta horien familien moldatze pertsonala eta sozialean eragin negatiboa duten arrisku-faktoreak desagerraraztea izango dute helburu. Horretarako, honako hauek sustatuko dira: gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen laguntza, adingabeei eta haien familiei laguntzeko bitartekoen erabilera, komunitatearen esparruko esku-hartzea, bai eta orientabidea emateko eta jarraipena egiteko zerbitzuak ere.

2.– Eskumena duten herri-administrazioek jakiten badute nasciturusaren garapen egokia arriskuan dagoela, ministerio fiskalari jakinaraziko diote, jaio arte behar duen ongizatea bermatzearen bidezko deritzen neurriak har ditzan. Hala ere, horrek ez die ezertan eragingo Haurduntzaren Borondatezko Etendurari buruzko uztailaren 5eko 9/1985 Lege Organikoan aurreikusitako kasuei.

2.– Las administraciones competentes velarán por la seguridad de las autoridades y servicios públicos y de las personas físicas, en particular de aquellas que por su profesión o función estén en relación con la persona menor, en los procedimientos administrativos particularmente conflictivos.

Asimismo, podrá solicitarse al fiscal competente la autorización de intervenir en los procedimientos conservando el anonimato y salvaguardando las garantías para que su aplicación no conlleve lesión de intereses legítimos.

SECCIÓN 3.ª
PAUTAS DE ACTUACIÓN EN SITUACIÓN
DE RIESGO

Artículo 51.– Concepto de situación de riesgo.

Se consideran situaciones de riesgo aquellas que perjudiquen el desarrollo personal o social del niño, niña o adolescente, que no quepa calificar de desamparo y que, por lo tanto, no requieran la asunción de la tutela por ministerio de la ley.

Aparece una situación de riesgo cuando el desarrollo y el bienestar de la persona menor de edad se ve limitado o perjudicado a consecuencia de circunstancias de carácter personal, social o familiar y los padres y madres, tutores o guardadores no asumen o pueden no asumir completamente sus responsabilidades para asegurar el normal desarrollo del niño, niña o adolescente. Todo ello, sin que la situación alcance la suficiente gravedad como para derivar en desprotección y justificar una separación del núcleo familiar.

Artículo 52.– Actuaciones en situación de riesgo.

1.– En las situaciones de riesgo, las administraciones públicas competentes en materia de protección a la infancia y adolescencia deberán garantizar los derechos que asisten a la población infantil y adolescente, así como asegurar la atención de sus necesidades. Las actuaciones públicas en esta materia estarán orientadas a la desaparición de los factores de riesgo que incidan de forma negativa en el ajuste personal y social de los niños, niñas y adolescentes y de sus familias. Para ello, se promoverá la colaboración de los padres y madres, tutores o guardadores, la utilización de recursos de apoyo personal y familiar, la intervención comunitaria, así como los servicios de orientación y seguimiento.

2.– Cuando las administraciones públicas competentes tengan conocimiento de que peligra el normal desarrollo del nasciturus, lo pondrán en conocimiento del ministerio fiscal a fin de que adopte las medidas que estime oportunas para garantizar su bienestar hasta el momento del nacimiento. Todo ello, sin perjuicio de los supuestos contemplados en la Ley Orgánica 9/1985, de 5 de julio, de Interrupción Voluntaria del Embarazo.

3.– Adingabeak babesteko arloan eskumena duten herri-administrazioek aurkitutako edo salatutako egoera egiaztatzeko betebeharra izango dute; orobat, kasuak agertzen dituen ezaugarriak eta beharrianak ebaluatze-ko betebeharra izango dute, eta kasua ebaluazio horren emaitzaren arabera ebaztearren beharrezkoak diren neurriak hartzeko betebeharra ere bai.

53. artikulua.– Oinarrizko gizarte-zerbitzuen esku-hartzea.

1.– Arrisku-egoeretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuek kasua hartu eta ikertu egin beharko dute, baloratu eta bideratu, eta, beharrezkoa baderitzote, komunitatearen esparrutik esku hartu beharko dute.

Haurraren babesgabezia-egoera oso larria dela iruditzen bazaie, esku-hartze espezializatuaren beharra dagoelako edo, are gehiago, adingabea bere familia-inguruetik bereizi behar delako, kasua haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzu espezializatura igorri beharko dute.

2.– Baldin eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek uste baidute komunitatearen esparrutik esku hartu behar dutela, kasu bakoitzerako arreta-plan bat egin beharko dute, eta, bertan, aurkitutako beharrianei erantzuteko txututu dituzten esku-hartzeak zehaztuko dituzte.

3.– Oinarrizko gizarte-zerbitzuek behar diren lan-gileak izango dituzte ezarritako helburuak betetzeko.

54. artikulua.– Haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuaren esku-hartzea.

1.– Babesgabetasun larriaren zantzuak ageri diren egoeretan, haurrak eta nerabeak babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuak hartu egin beharko dute kasua, dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuak edo beste edozein erakundek edo pertsonak jakinarazi diena, eta ikertu egin beharko dute eta balorazio osagarri bat egin, egoeraren larria zehazteko eta kasua nola bideratu erabakitzeke. Eta egoera larria dela baieztatzen bada, zerbitzu espezializatuak berak esku hartu beharko du, oinarrizko gizarte-zerbitzuarekin elkarlanean; egoeraren arriskua txikia edo ertaina denean, aldiz, eta zerbitzu espezializatuaren esku-hartzea beharrezkoa ez denean, oinarrizko gizarte-zerbitzuari igorri beharko dio.

2.– Baldin eta kasua ez bazaio igortzen oinarrizko gizarte-zerbitzuari, zerbitzu espezializatuak, aldiro-aldiro, adingabearen egoeraren berri eman beharko dio oinarrizko gizarte-zerbitzuari, eta ahalegina egin beharko du haurraren edo nerabearen eta oinarrizko gizarte-zerbitzuaren arteko harremanek jarrai dezaten, haurra edo nerabea familia-egoitzara itzultzen bada ere, harremanak eta jarraipena erraztearren. Oinarrizko gizarte-

3.– Las administraciones públicas competentes en materia de protección de personas menores de edad estarán obligadas a verificar la situación detectada o denunciada, a evaluar las características y necesidades del caso y a adoptar las medidas necesarias para resolverlo en conformidad con el resultado de dicha valoración.

Artículo 53.– Intervención desde los servicios sociales de base.

1.– En situaciones de riesgo, los servicios sociales de base deberán proceder a la recepción del caso y a su investigación, valoración y orientación, debiendo, si lo estiman necesario, intervenir desde el ámbito comunitario.

Cuando consideren que existe una situación de desprotección infantil de gravedad elevada, que pudiera requerir una intervención especializada o incluso la separación de la persona menor de edad de su ámbito familiar, deberán derivarlo al servicio especializado de protección a la infancia y la adolescencia.

2.– En los casos en los que los servicios sociales de base estimen necesaria la intervención desde el ámbito comunitario, deberán elaborar un plan individualizado de atención en el que se harán constar las intervenciones diseñadas para responder a las necesidades detectadas.

3.– Los servicios sociales de base contarán con el personal necesario para el cumplimiento de los objetivos requeridos.

Artículo 54.– Intervención desde los servicios territoriales especializados de protección a la infancia y adolescencia.

1.– En situaciones en las que existan indicios de desprotección grave, los servicios territoriales especializados de protección a la infancia y la adolescencia deberán proceder a la recepción del caso, haya sido éste comunicado por el servicio social de base correspondiente o por cualquier otra instancia o persona, así como a su investigación y valoración complementaria a fin de determinar la gravedad de la situación y definir la orientación del caso. En los supuestos en los que se confirme que se trata de una situación grave, se intervendrá desde el propio servicio especializado en coordinación con el servicio social de base; y en los supuestos en los que se considere que se trata de una situación de riesgo leve o moderado que no requiere una intervención especializada se remitirá el caso al servicio social de base.

2.– En los casos en los que la derivación no se produzca, el servicio especializado deberá informar periódicamente al servicio social de base de la situación de la persona menor de edad, tratando de mantener el contacto entre este servicio y el niño, niña o adolescente con el fin de facilitar las relaciones y el seguimiento en caso de vuelta al domicilio familiar. Este deber de información podrá exceptuarse cuando no sea previsible

zerbitzuari berri emateko betebehari hori salbuetsi egin daiteke familiaren egoitzara itzultzeko aukerarik aurreikusten ez denean. Oinarrizko gizarte-zerbitzuek, bestalde, egoki iruditzen zaien guztietan, informazioa eskatu ahal izango dute zerbitzu espezializatuera igorri dituzten kasuen bilakaerari buruz.

3.- Haurrak eta nerabeak babesteko arloan eskumena duten herri-administrazioek presazko prozedura bat eduki beharko dute araututa, profesionalen iritziz behar konpondu beharrekoak diruditen egoerei ahalik eta lasterren erantzuteko.

55. artikulua.— Familietan esku hartzeko zerbitzu eta programak.

1.- Herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, arrisku-egoerei erantzute aldera, familietan esku hartzeko programak sortu eta sustatu egingo dituzte.

2.- Lege honen ondorioetarako, familietan esku hartzeko programak dira familiei gizarte eta hezkuntza laguntza eskaintzen dietenak, familia horiek arlo pertsonalean zein gizartearen eta hezkuntzaren arloetan trebetasun-gabeziak badituzte eta gabezia horiek haur eta nerabeentzako arrisku-egoera sor badezakete, familiaren baitan irautea ere zailtzera, alegia.

3.- Familietan esku hartzeko programak era hauetakoak izan daitezke:

a) oinarrizkoak: familia-egoitza aplikatzekoak, etxe barruko hezkuntza-programak esate baterako; edo komunitate-ingurunean aplikatzekoak, kale-hezkuntzako programak hain zuzen;

b) espezializatuak, hala nola, arazoak dituzten familietan esku-hartze terapeutikoak egiteko zerbitzuak; tratu txarrak, abandonua edo esplotazioa dauden egoeretan —lan-esplotazioa barnean izanik— esku hartzeko zerbitzuak, bai eta sexu-abusuak daudenean ere esku hartzeko zerbitzuak.

4.- Familietan esku hartzeko programen xedea, arrisku-egoeretan, haur eta nerabeek familiaren gunean jarraitzea izango da. Horrez gain, babesgabezia-egoeretan, programa horiek eta familia-harrerako neurriak edo erakunde-harrerako neurriak aldi berean aplikatu ahal izango dira, etxe barruko elkarbizitza hobetzeren eta ondoren adingabea bere jatorrizko familia-gunera biltzeren, 61.3 artikuluan aurreikusitako moduan.

4. ATALA

BABESGABEZIA-EGOERETAN JARDUTEKO JARRAIBIDEAK

56. artikulua.— Babesgabezia-egoeraren kontzeptua.

Kode Zibilaren 172.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, babesgabezia-egoera dagoela joko da egitez hala gertatzen denean arrazoi hauetako bat tarteko: adinga-

este retorno al domicilio familiar. Por su parte, los servicios sociales de base podrán solicitar, siempre que lo estimen oportuno, información sobre la evolución de los casos que hubieran derivado.

3.- Las administraciones públicas competentes en materia de protección deberán regular y articular un procedimiento de urgencia que permita responder con la mayor inmediatez a situaciones que, a juicio de los profesionales, así parezcan requerirlo.

Artículo 55.— Servicios y programas de intervención familiar.

1.- Las administraciones públicas, en el ámbito de sus competencias, crearán y promoverán programas de intervención familiar dirigidos a dar respuesta a las situaciones de riesgo.

2.- A efectos de la presente ley, se entiende por programas de intervención familiar aquellos que proporcionan apoyo socioeducativo a familias cuyas carencias en el ámbito de las habilidades personales, sociales o educativas generan o serían susceptibles de generar a los niños, niñas o adolescentes una situación de riesgo que podría llegar a dificultar su permanencia en el hogar familiar.

3.- Los programas de intervención familiar podrán ser:

a) básicos, de aplicación en el domicilio familiar, como los programas de educación doméstica, o en el entorno comunitario, como los programas de educación de calle;

b) especializados, como los servicios de intervención terapéutica en familias problemáticas, los servicios de intervención en situaciones de maltrato, abandono o explotación, incluido el ámbito laboral, así como los servicios de intervención en situaciones de abuso sexual.

4.- Los programas de intervención familiar irán dirigidos, cuando se trate de situaciones de riesgo, al mantenimiento de los niños, niñas y adolescentes en el núcleo familiar. Podrán, además, cuando se trate de situaciones de desamparo, aplicarse junto con una medida de acogimiento familiar o institucional, a fin de mejorar las condiciones de convivencia en el hogar, en aras de la integración del menor en su núcleo familiar de origen, tal y como se prevé en el artículo 61.3.

SECCIÓN 4.ª

PAUTAS DE ACTUACIÓN EN SITUACIÓN DE DESAMPARO

Artículo 56.— Concepto de situación de desamparo.

De conformidad con el artículo 172.1 del Código Civil, se considera situación de desamparo la que se produce de hecho a causa del incumplimiento, o del im-

been zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez betetzeagatik edo eginbehar horien egikarritza ezinezko nahiz desegoki izateagatik, adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala.

57. artikulua.– Babesgabezia-egoeretako jarduketak.

Haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen herri-administrazioak uste baldin badu haurra edo nerabea babesgabezia-egoeran dagoela, Kode Zibilaren 172. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jardungo du. Horretarako, bere gain hartuko du delako haur eta nerabearen tutoretza, eta babes-neurri egoiak erabakiko ditu. Hori guztia ministerio fiskalari jakinaraziko dio.

58. artikulua.– Prozedura arrunta.

1.– Adingabeak babesteko eskumena duen herri-administrazioak jakiten duenean haur edo nerabe bat babesgabezia-egoeran egon daitekeela, espediente bat hasi beharko du, eta espediente hori honako jarraibidearen arabera tramitatuko da:

a) Adingabearen familia-egoera zein egoera soziala ezagutzeko eta baloratzeko garrantzizko datuak eman ditzaketen pertsona nahiz erakunde guztiei informazioa eskatuko diete, batez ere oinarrizko gizarte-zerbitzuei.

Beharrezkoa iritziz gero, eskolako tutoreari eta familiako medikuari edota pediatriari eskatuko zaio informazioa, edo osasunaren zein gizartearen nahiz hezkuntzaren arloetako beste zerbitzuetako profesionalen bati; profesional horiek idatziz igorri beharko dituzte eskura dituzten informazioak eta datuak, esku-hartzearen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko behar direnak, eta behar adina igorri ere.

b) Arrisku-egoera bat edo babesgabezia-egoera bat antzemateko eta baloratzeko eginkizunean laguntzen duten erakunde eta profesionali egoera horren bilakarearen berri ematea, isilpekotasun-betebeharrak eskatutako mugen barruan, eta, betiere, berri ematea bidegabea ez bada.

c) Haurrari edo nerabeari, nahikoa ezagumen duenean, esateko duena entzutea, berari zuzen-zuzenean edo bera ordezkatzeko izendatzen duen pertsonari. Ezinezkoa bada, edo adingabearen interesa dela-eta komeni ez bada, adingabearen iritzia jakiteko, lanbideagatik edo adingabearekin aparteko konfiantza izateagatik iritzi hori objektotasunez eman dezaketen pertsonengana jo ahal izango da.

d) Haurraren edo nerabearen gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei entzutea, ahal bada.

e) Haurraren edo nerabearen egoeraz eta haren familiaz edo hura zaintzen dutenez informazioa eman dezaketzen guztiei entzutea.

posible o inadecuado ejercicio de los deberes de protección establecidos por las leyes para la guarda de las personas menores de edad, cuando éstas queden privadas de la necesaria asistencia moral o material.

Artículo 57.– Actuaciones en situación de desamparo.

Cuando la administración pública competente en materia de protección considere que el niño, niña o adolescente se encuentra en situación de desamparo, actuará conforme a los artículos 172 y siguientes del Código Civil, asumiendo la tutela de la persona menor de edad, adoptando las medidas de protección oportunas y poniendo estas circunstancias en conocimiento del ministerio fiscal.

Artículo 58.– Procedimiento ordinario.

1.– En el momento en que la administración pública competente en materia de protección de menores tenga conocimiento de que un niño, niña o adolescente puede encontrarse en situación de desamparo, debe iniciar un expediente cuya tramitación responderá a las siguientes pautas de actuación:

a) Solicitar informes a cuantas personas u organismos puedan facilitar datos relevantes para el conocimiento y la valoración de la situación sociofamiliar, especialmente a los servicios sociales de base.

Si se estima necesario, se solicitarán informes al tutor escolar y al médico de familia o al pediatra, o a cualquier otro profesional de la salud u otros ámbitos de atención social o educativa, debiendo estos profesionales transmitir por escrito los datos e informaciones necesarias y suficientes de los que dispongan para garantizar la calidad y la eficacia de las intervenciones.

b) Informar a los organismos y profesionales que colaboren en la detección y valoración de una situación de riesgo o desprotección de las líneas generales de su evolución, dentro de los límites exigidos por el deber de reserva y siempre que no resulte improcedente dicha comunicación.

c) Oír al niño, niña o adolescente, directamente o a través de la persona que designe para que le represente, cuando tenga suficiente juicio. Cuando ello no sea posible o no convenga al interés de la persona menor de edad, podrá conocerse su opinión a través de personas que, por su profesión y relación de especial confianza con ella, puedan transmitirla objetivamente.

d) Oír a los padres y madres, tutores o guardadores del niño, niña o adolescente siempre que sea posible.

e) Oír a cuantas otras personas puedan aportar información sobre la situación del niño, niña o adolescente y sobre su familia o las personas que lo atiendan.

f) Adingabeak behar duen arreta berehala eskaintzea, horretarako, hala badagokio, beharrezkoak diren zuhurtasun-neurriak edo behin-behineko neurriak hartuta.

g) Haurrari edo nerabeari, bere adimen mailaren eta gaitasunaren arabera, berari dagokion prozedura zein egoeratan dagoen azaltzea, eta halaber gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei ere.

h) Arreta-plan bat egitea bakoitzarentzat, antzemandako beharriaz egokituta.

i) Haurraren edo nerabearen gaineko informazio guztia espediente bereizi batean biltzea.

2.- Tramite horiek amaitu ondoren, eskumena duen organoak erabaki egingo du, eta, hala badagokio, administrazio-ebazpen bat emango du, eta hartan, babesgabezia-egoera badagoela adierazi, legeak aginduta tutoretza ezarri eta dagozkion babes-neurriak hartuko ditu. Ebazpen hori ministerio fiskalari jakinaraziko zaio, eta haurraren edo nerabearen guraso, tutore eta zaintzaileei ere bai, bi egun naturaleko epearen barruan. Ahal den guztietan, jakinarazpen hori, idatziz ez ezik, aurrez aurre ere jakinarazi beharko da.

Ebazteko epea hiru hilabetekoa izango da, haurrari eta nerabeari babes emateko zerbitzu espezializatuak kasua jasotzen duenetik kontatzen hasita; epe hori beste hiru hilabetez luzatzeko aukera ere izango da, ezaugarri bereziak izateagatik lege ezarritako epearen barruan ebaztea ezinezkoa den kasuetan, betiere, arrazoitu egiten bada. Epe hori igarotakoan, iraungipena gertatuko da, salbu eta prozedura interesatuari egotz ezin dakiokeen kausaren batengatik gerazten denean; orduan, ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa eten egingo baita.

Babesgabezia badagoela iritzi eta legeak aginduta tutoretza ezarri beharra dagoela ezartzen duten ebazpenetan, esku-hartze horren arrazoiak adierazi behar dira, bai eta hartutako erabaki eta neurrien balizko ondorioak ere. Era berean, hau ere adierazi behar da: badagoela jurisdikzio zibilean ebazpenen aurkako errekursoak aurkeztea, administrazioari alde aurretik erreklamaziorik aurkeztu beharrik gabe.

Baldin eta babesgabeziarik ez dagoela jotzen bada, eta arrisku arin bat badagoela ikusten bada, dagokion oinarriko gizarte-zerbitzuari igorriko zaio kasua, egoien deritzen neurriak har ditzan.

59. artikulua.– Presazko prozedura.

1.– Haurraren edo nerabearen osotasun fisiko edo psikikoa babesgabetasun larrian dagoenean eta berehala esku hartzea beharrezkoa denean, presazko egoera batean gaudela joko da.

2.– Eskumena duen organoak, aurreko artikuluko c) idatz-zatian ezarritako tramitea bete eta berehala, administrazio-ebazpena emango du, eta hartan, babesgabezia

f) Prestar la atención inmediata que precise la persona menor de edad, adoptando, en su caso, las medidas cautelares o provisionales que se estimen pertinentes.

g) Informar al niño, niña o adolescente, en función de su nivel y capacidad de entendimiento, del estado en que se encuentra el procedimiento que le concierne, e informar igualmente a los padres y madres, tutores o guardadores.

h) Elaborar un plan individual de atención adecuado a las necesidades detectadas.

i) Recoger el conjunto de la información referida al niño, niña o adolescente en un expediente individual.

2.– Finalizados los trámites anteriormente citados, el órgano competente para resolver dictará, en su caso, una resolución administrativa que declarará la situación de desamparo, la asunción de la tutela por ministerio de la ley y las medidas de protección que correspondan. Esta resolución se notificará al ministerio fiscal y a los padres y madres, tutores o guardadores del niño, niña o adolescente en un plazo de dos días naturales. Siempre que resulte posible, esta notificación, además de por escrito, deberá comunicarse de forma presencial.

El plazo máximo de resolución será de tres meses a contar desde la fecha de recepción del caso en el servicio especializado de protección a la infancia y adolescencia, y podrá prorrogarse de forma motivada por un plazo máximo de otros tres meses en aquellos casos cuyas particulares características hagan inviable su resolución en el tiempo legalmente establecido al efecto. Transcurrido este plazo se producirá la caducidad, salvo que el procedimiento se paralice por causa no imputable al interesado. En este caso interrumpirá el cómputo del plazo para resolver y notificar la resolución.

Las resoluciones que aprecien el desamparo y declaren la asunción de la tutela por ministerio de la ley deberán contener los motivos de la intervención, así como los posibles efectos de las decisiones y medidas adoptadas. Asimismo, deberán indicar que las resoluciones serán recurribles ante la jurisdicción civil, sin necesidad de reclamación administrativa previa.

En el supuesto de no constatarse el desamparo, si se observara una situación de riesgo leve, el caso se derivará al servicio social de base correspondiente a fin de que adopte las medidas que estime más adecuadas.

Artículo 59.– Procedimiento de urgencia.

1.– Se entiende por situación de urgencia aquella que suponga la existencia de desprotección grave para el niño, niña o adolescente, en lo que a su integridad física o psíquica se refiere, y haga precisa una intervención inmediata.

2.– El órgano competente, de modo inmediato y tras el cumplimiento del trámite previsto en la letra c) del artículo anterior, dictará, siempre que se encuentre su-

bezia-egoera deklaratu du –betiere, egoera hori behar bezala egiaztatu bada–, babesgabezia dagoen hauraren edo nerabearen tutoretza hartuko du bere gain, eta hari laguntzeko behar adina neurri ezarriko ditu. Ebazpen hori ministerio fiskalari eta hauraren edo nerabearen gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei jakinaraziko zaie. Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera jarraituko da, gero, espediente arruntaren tramitazioa.

Tramite guztiak bete ondoren, eskumena duen organoak administrazio-ebazpena emango du, dela babesgabezia-egoera baieztatzeko eta egindako balorazioaren arabera egokienak diren neurriak hartzeko, dela hasieran ezarritako tutoretzaren amaiera adierazteko, hartu diren behin-behineko neurriak bertan behera uzteko eta espediente artxibatzeko. Tutoretzaren amaiera adierazten denean arrisku txikia edo ertaina badagoela ikusten bada, kasua dagokion oinarriko gizarte-zerbitzuari igorriko zaio, egokien deritzen neurriak har ditzan.

60. artikulua.– Erakunde publikoak tutoretza bere gain hartzeak izango dituen ondorioak.

Adingabeak babesteko eskumena duten herri-administrazioek tutoretza beren gain hartzen dutenean iraungi egingo da horrenbestez guraso-ahala edo tutoretza arrunta. Hala ere, ondareari eragiten dioten egin-tzak, gurasoek edo tutoreek haurra edo nerabea ordezkatzuz egindakoak, baliozkoak izango dira, baldin eta adingabearentzat onuragarri badira.

61. artikulua.– Tutoretza egikaritzea.

1.– Eskumena duen herri-administrazioak hauraren edo nerabearen gainean duen tutoretzak indarrean jarraitzen duen artean, era hauetako zaintzaren bat emango zaie haur edo nerabe horiei, beren beharrezan erantzute aldera:

- a) Familia-harrera.
- b) Egoitza-harrera.

Salbuespen gisa, kasuaren ezaugarriak direla-eta hala komeni bada, bestelako laguntza-mota batzuk aukeratu ahal izango dira, adingabearen beharrezan erantzuteko egokiagoak direla jotzen bada, betiere, laguntza-mota horrek ez baldin badakar egoitza-harrerak –78. artikuluan aipagai diren arauak jarraiki– eragiten duen eskubide-murrizketa baino murrizketa handiagoa. Laguntza-mota horiek lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako zerbitzu esperimentalen barruan kokatzen dira.

2.– Tutoretza egikaritzekoan, eskumena duen herri-administrazioak honako neurri hauek susta ditzake:

- a) Familiaren egoitzara itzularaztea.
- b) Tutoretza arrunta ezartzea.
- c) Adopzioa.

3.– Harrera-neurriarekin batera, jatorrizko familian esku hartzeko programa bat ezarri ahal izango da, hau-

ficientemente acreditada, una resolución administrativa que declarará la situación de desamparo, asumirá la tutela y adoptará cuantas medidas sean necesarias para asegurar la asistencia al niño, niña o adolescente; esta resolución será notificada al ministerio fiscal y a los padres y madres, tutores o guardadores del niño, niña o adolescente. La tramitación del expediente ordinario continuará de conformidad con lo establecido en el artículo anterior.

Cumplidos todos los trámites, el órgano competente dictará resolución administrativa que o bien confirmará la situación de desamparo y, en tal caso, adoptará las medidas consideradas más convenientes según la valoración realizada, o bien declarará la extinción de la tutela inicialmente constituida, el cese de las medidas provisionales que se hubieran adoptado y el archivo del expediente. En este último supuesto, si se observara una situación de riesgo leve o moderado, el caso se derivará al servicio social de base correspondiente para que adopte las medidas que estime más adecuadas.

Artículo 60.– Consecuencias de la asunción de la tutela por la entidad pública.

La asunción de la tutela por la administración pública competente en materia de protección de personas menores de edad conlleva la suspensión de la patria potestad o de la tutela ordinaria. No obstante, serán válidos los actos de contenido patrimonial que realicen los padres y madres o tutores en representación del niño, niña o adolescente y que sean beneficiosos para la persona menor de edad.

Artículo 61.– Ejercicio de la tutela.

1.– En tanto se mantenga la situación de tutela de un niño, niña o adolescente por parte de la administración pública competente, se acordará, con el fin de garantizar la cobertura de sus necesidades, su atención bajo alguna de las siguientes modalidades de guarda:

- a) Acogimiento familiar.
- b) Acogimiento residencial.

Excepcionalmente, y cuando lo aconsejen las circunstancias del caso, podrá optarse por modalidades de atención alternativas que se estimen más aptas para responder a las necesidades de la persona menor de edad, siempre que las mismas no conlleven una limitación de derechos superior a la del acogimiento residencial en los términos que se prevén en la regulación a la que se refiere el artículo 78. Estas modalidades de atención se enmarcarán en los servicios experimentales previstos en la disposición adicional primera.

2.– Durante el ejercicio de la tutela la administración pública competente podrá promover:

- a) la reintegración en el domicilio familiar;
- b) la tutela ordinaria;
- c) la adopción.

3.– Junto con la medida de acogimiento que se establezca, podrá aplicarse un programa de intervención

rra edo nerabea familiaren egoitzara itzultzen deneko etxeko elkarbizitzaren baldintzak hobeak izan daitezzen; 55. artikuluan ezarritako eran ezarriko da esku hartzeko programa hori.

62. artikulua.– Tutoretza amaitzeko arrazoiak.

Tutoretza honako arrazoi hauengatik amaituko da:

a) Adin-nagusitasunera iristea edo emantzipazioa eskuratzea, salbu eta alde zurreratik ez bada ezgaitua izan epe bidez.

b) Adingabeari adin-nagusitasunaren onura esleitzea.

c) Tutoretza ezartzea eragin zuten arrazoiek indarra galdu dutela eta, administrazio-ebazpena ematea tutoretza bertan behera uzteko.

d) Administrazio-ebazpena tarteko, adingabea beste babes-erakunde baten esku uztea. Horrelakoetan, entzun egin behar zaio alde zurreratik adingabeari eta, ahal dela, joango den leku horretan arreta eta babes neurriak egokiak direla egiaztatuko da.

e) Epailaren ebazpen irmoaren bidez, adopzioa edo tutoretza arrunta ezartzea, edo babesgabezia-egoera amaitu dela adieraztea.

f) Tutoretzapean dagoen pertsona hiltzea.

63. artikulua.– Babesgabezia-egoeraren aurrean hartutako neurriak gauzatzeko oztopoak.

Behin babesgabezia-egoera dagoela adierazi denean, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek edo senitartekoek oztopatu egiten badute erabakitako neurriak gauzatea, edo egoeraren batek eragotzi egiten badu larriki neurri horiek gauzatea, ministerio fiskalari eskatuko zaio har ditzala ahalik eta lasterren neurri horiek gauzatzeko neurriak. Gainera, adingabeari bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan badago edo haren eskubideak urratzen ari badira, berehala esku hartu beharko da. Era berean, polizia-agenteen lankidetzak eta laguntza eskatu ahal izango da erabakitako neurriak gauzatzeko, indarrean dagoen legediak aurreikusitako eran eta hedadurarekin.

5. ATALA

HERRI-ERAKUNDEEK ZAINTZA BEREN GAIN HARTZEKO ETA GAUZATZEKO PROZEDURA

64. artikulua.– Zaintza.

1.– Haur edo nerabe baten zaintza duenak haren ardura hartu behar du, berekin eduki, elikatu, hezi eta arreta eta eta heziketa integrala eskaini.

2.– Babesgabezia egoteagatik tutoretzapean dauden haur eta nerabeen zaintza beren gain edukitzeaz gain, adingabeei babesa emateko eskumena duten herri-administrazioek, beste kasu batzuetan ere, beren gain har dezakete haurren eta nerabeen zaintza, aldi batez, bal-

familiar a la familia de origen, con el fin de mejorar las condiciones de convivencia en el hogar en aras de la posible reintegración del niño, niña o adolescente en su hogar familiar, en los términos referidos en el artículo 55.

Artículo 62.– Causas de cese de la tutela.

La tutela podrá cesar por las siguientes causas:

a) Acceso a la mayoría de edad o emancipación, salvo que con anterioridad hubiera sido judicialmente incapacitado.

b) Concesión a la persona menor de edad del beneficio de la mayor edad.

c) Resolución administrativa dictada como consecuencia del cese de las circunstancias que motivaron la medida.

d) Resolución administrativa dictada con ocasión del traslado a otra entidad de protección. En este caso deberá oírse previamente a la persona menor de edad y, en lo posible, verificar la adecuación de las medidas de atención y protección previstas en el lugar de destino.

e) Resolución judicial firme que constituya la adopción o la tutela ordinaria o que dicte el cese de la situación de desamparo.

f) Fallecimiento de la persona sometida a tutela.

Artículo 63.– Obstáculos en la ejecución de las medidas acordadas en situación de desamparo.

Declarada la situación de desamparo, si los padres y madres, tutores o guardadores, o los familiares, impidiesen la ejecución de las medidas acordadas, o si concurriese alguna otra circunstancia que dificultase gravemente su ejecución, se solicitará al ministerio fiscal la adopción, con la mayor celeridad posible, de las medidas precisas para hacerlas efectivas, sin perjuicio de las intervenciones inmediatas que fuesen necesarias si estuviera en peligro la vida o integridad de la persona menor de edad o se estuvieran conculcando sus derechos. Asimismo, podrá recabarse la cooperación y asistencia de los agentes policiales en la ejecución de las medidas acordadas, en los términos y con el alcance previsto en la legislación vigente.

SECCIÓN 5.ª

PROCEDIMIENTO DE ASUNCIÓN Y EJERCICIO DE LA GUARDA

Artículo 64.– Guarda.

1.– La guarda de un niño, niña o adolescente supone para quien la ejerce la obligación de velar por él, tenerlo en su compañía, alimentarlo, educarlo y procurarle una atención y formación integral.

2.– Además de la guarda de los niños, niñas y adolescentes tutelados por encontrarse en situación de desamparo, la administración pública competente en materia de protección de personas menores de edad podrá asumir temporalmente la guarda de los niños, niñas y

din eta haien gurasoek edo tutoreek, egoera larrian ego-teagatik, zaindu ezin baditzaizkete. Bestalde, legez bidezkoa den kasuetan epaileak hala erabakita ere hartuko du bere gain zaintza hori.

3.- Halaber, zaintza-mota erabakitzen duen administrazio-ebazpenean, haurrari edo nerabeari arreta eskaintzeko modu horrek zer baldintza funtsezko bete behar dituen ezarri beharko da.

4.- Lurralde historikoetako foru-organoei fitxategi bat egingo dute eta eguneratuta edukiko, bertan tutoretza edo zaintza neurriean dauden haur eta nerabe guztien nortasuna jasota. Fitxategi hori isilean edukiko beharko da, eta sarbidea mugatua izango du.

65. artikulua.- Prozedura arrunta.

1.- Baldin eta haur edo nerabe baten gainean guraso-ahala edo tutoretza dutenek egiaztatzen badute gaitasunagatik edo beste arrazoi larri batzuegatik ezin dutela haur edo nerabe hori zaindu, eta Kode Zibilarren 172.2 artikuluan ezarritakoaren arabera haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen herri-administrazioari eskatzen badiote har dezala aldi baterako bere gain adingabearen zaintza, orduan, herri-erakundeak espediente bat hasi beharko du, urrats hauek eginez:

a) Gurasoei, tutoreei edo legezko zaintzaileei eskatu behar die egiazta ditzatela haurra edo nerabea zaintzea eragozten dieten arrazoi larri eta aldi baterakoak.

b) Informazio eskatu behar die adingabearen gizarte eta familia egoera ezagutzeko eta baloratzeko datu baliagarriak eman ditzaketen pertsona eta erakunde guztiak; batez ere, udaleko gizarte-zerbitzuei, eta, beharrezkoa bada, baita eskolako tutoreari, familia-medikuari edo pediatriari, edo osasun arloko zein gizarte edo hezkuntza arretako beste arlo batzuetako profesionali.

c) Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ohartarazi behar ditu haurrari edo nerabeari buruz dituzten eta eteten ez diren erantzukizunez, bai eta zaintza hori ezarri beharra eragin duten arrazoiak gainditzeko beharrezkotzat jotako programetan parte hartzeko duten betebeharrak.

d) Zaintza hori idatziz formalizatu behar du, eta idatzkian adieraziko dute jakinarazi zaizkiela gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei c) idatz-zatian adierazitako oharra, bai eta Administrazioak zaintza nola egingo duen ere.

e) Haurrari edo nerabeari, nahikoa ezagumen duenean, esateko duena entzun behar zaio, berari zuzen-zuzenean edo bera ordezkatzeko izendatzen duen pertsonari. Ezinezkoa bada edo adingabearen interesa dela-eta komeni ez bada, haren legezko ordezkarien bitartez jakin ahal izango da zer iritzi duen, betiere legezko ordezkari horiek alderdi interesatu ez badira eta adingabearen interesen aurkako interesik ez badute; edo, bes-

adolescentes cuando sus padres y madres o tutores, por circunstancias graves, no puedan cuidar de ellos. Así mismo, asumirá la guarda cuando así lo acuerde el juez en los casos en que legalmente proceda.

3.- La resolución administrativa que determine la modalidad de la guarda deberá fijar igualmente las condiciones esenciales que la atención al niño, niña o adolescente deba cumplir.

4.- Los órganos forales de los territorios históricos elaborarán y mantendrán actualizado un fichero en el que deberá constar la identificación de todos los niños, niñas y adolescentes que sean objeto de una medida de tutela o de guarda. Este fichero tendrá carácter confidencial y el acceso al mismo será restringido.

Artículo 65.- Procedimiento ordinario.

1.- Cuando quienes tengan la patria potestad o la tutela sobre un niño, niña o adolescente justifiquen no poder atenderlo por enfermedad u otras circunstancias graves y soliciten a la administración pública competente en materia de protección de la infancia y adolescencia que, de conformidad con el artículo 172.2 del Código Civil, asuma temporalmente la guarda de la persona menor de edad, la entidad pública deberá tramitar un expediente atendiendo a las siguientes pautas de actuación:

a) Solicitar a los padres y madres, tutores o guardadores legales que acrediten las circunstancias graves y temporales que impiden atender al niño, niña o adolescente.

b) Solicitar informes a cuantas personas u organismos puedan facilitar datos relevantes para el conocimiento y la valoración de la situación sociofamiliar, especialmente a los servicios sociales municipales, y, cuando se considere necesario, a su tutor escolar y al médico de familia o al pediatra, o a cualquier otro profesional de la salud o de otros ámbitos de atención social o educativa.

c) Informar a los padres y madres, tutores o guardadores de las responsabilidades que siguen manteniendo respecto al niño, niña o adolescente y de su obligación de participar en los programas que se estimen necesarios para superar los factores que han dado lugar a la guarda.

d) Formalizar la guarda por escrito, dejando constancia de que los padres y madres, tutores, o guardadores han sido informados de los extremos indicados en la letra c) y concretando la forma en que va a ejercerse la guarda por la Administración.

e) Oír al niño, niña o adolescente, directamente o a través de la persona que designe para que le represente, cuando tenga suficiente juicio. Cuando ello no sea posible o no convenga al interés de la persona menor de edad, podrá conocerse su opinión por medio de sus representantes legales, siempre que no sean parte interesada ni tengan intereses contrapuestos a los de aquélla, o a través de otras personas que, por su profesión y

tela, lanbideagatik edo adingabearekin aparteko konfiantza bereziarengatik haren iritzia era objektiboan eman dezaketen pertsonen bitartez.

2.– Eskumena duen erakunde publikoak ebazpen arrazoitu baten bitartez formalizatu beharko du babesneurri hau. Ebazpen horretan, baietsi edo ezetsi egingo du eskaera, eta ezetsi egiten badu, babesgabeziaren legezko egoera deklaratu ahal izango du, horretarako arrazoirik izanez gero. Delako ebazpena ministerio fiskalari eta gurasoei edo tutoreei jakinaraziko zaie.

66. artikulua.– Presako prozedura.

Baldin eta haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen herri-administrazioak uste badu presakoa dela zaintza bere gain hartzea haurraren edo nerabearen guraso-ahala edo tutoretza dutenek eskaera aurkeztu ondoren, orduan, familia-harrera ezartzea bidezkoa izango da. Horretarako, alde aurretik, aurreko artikuluko e) idatz-zatian adierazitako tramitea bete beharko da, eta ondoren artikuluko horretan bertan ezarritako prozedurari jarraitu beharko zaio.

67. artikulua.– Zaintza gauzatzea.

1.– Haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen herri-administrazioak adingabearen aldi baterako zaintza bere gain hartzen duenean, Kode Zibilaren 172.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, neurri hauetako batzuk hartuko ditu, haurraren edo nerabearen beharri zanei erantzute aldera:

- a) Egoitza-harrera.
- b) Familia-harrera.

2.– Zaintza gauzatzeko eran aldaketaren bat egiteko, administrazio-ebazpen arrazoitua beharko da, eta ebazpen hori jakinarazi egin beharko zaie gurasoei edo tutoreei eta ministerio fiskalari.

68. artikulua.– Zaintza amaitzea.

Zaintza amaitu ahal izateko arrazoiak hauek izango dira:

- a) Gurasoek edo tutoreek hala eskatzea, idatziz.
- b) Zaintza gauzatzeko ardura esleitu zaien pertsonen hala eskatzea.
- c) Eskumena duen herri-erakundeak adingabearen interesaren alde hala erabakitzea, administrazio-ebazpen baten bitartez.
- d) Epailak epai irmoaren bidez hala erabakitzea.
- e) Adingabeko pertsonak adin-nagusitasuna edo emantzipazioa eskuratzea.
- f) Adingabearen heriotza.

relación de especial confianza con la persona menor de edad, puedan transmitir su opinión objetivamente.

2.– La entidad pública competente deberá formalizar la adopción de esta medida de protección mediante una resolución motivada que aceptará o denegará la solicitud, pudiendo, en este último caso, declarar la situación legal de desamparo si se dan las circunstancias para ello. Esta resolución se notificará al ministerio fiscal y a los padres y madres o tutores.

Artículo 66.– Procedimiento de urgencia.

Si la administración pública competente en materia de protección de la infancia y adolescencia estima la urgencia de la asunción de la guarda tras la presentación de la correspondiente solicitud por parte de quienes tengan la patria potestad o la tutela del niño, niña o adolescente, procederá a llevar a cabo el acogimiento, previo cumplimiento del trámite señalado en la letra e) del artículo anterior, tras lo cual continuará el procedimiento ordinario establecido en dicho artículo.

Artículo 67.– Ejercicio de la guarda.

1.– Cuando la administración pública competente en materia de protección de la infancia y adolescencia asuma la guarda temporal de personas menores de edad, acordará, en virtud del artículo 172.3 del Código Civil, con el fin de garantizar la cobertura de las necesidades de la persona menor de edad, alguna de las siguientes medidas:

- a) Acogimiento en un centro residencial.
- b) Acogimiento familiar.

2.– Cualquier variación posterior en la forma de ejercicio de la guarda será adoptada mediante resolución administrativa motivada y notificada a los padres y madres o tutores y al ministerio fiscal.

Artículo 68.– Cese de la guarda.

La guarda podrá cesar por alguna de las siguientes causas:

- a) A petición escrita de los padres y madres o tutores.
- b) A petición de las personas a quienes se haya otorgado el ejercicio de la guarda.
- c) Por resolución administrativa de la entidad pública competente, cuando así lo considere en interés de la persona menor de edad.
- d) Por resolución judicial firme.
- e) Por alcanzar la mayoría de edad o por producirse la emancipación de la persona menor de edad.
- f) Por fallecimiento de la persona menor de edad.

6. ATALA
FAMILIA-HARRERA**69. artikulua.**— Familia-harreraren definizioa.

Familia-harrera da haurrak eta nerabeak babesteko neurri bat, Administrazioak edo epaileak hartutakoa, haurren edo nerabearen zaintza pertsona edo familia bati ematen diona, hura jagon, berekin eduki, zaindu, elikatu, haren arreta hartu eta heziketa integrala emateko betebeharrarekin, ordezeko familia-bizitza bat edo jatorrizkoaren familia osagarri bat ematearren.

Familia-harreraren esparru horren barruan, familia hartzaileak Administrazioarekin elkarlanean jardun behar du babes-eginkizun horretan.

70. artikulua.— Familia-harrera formalizatzeko prozedura.

1.— Kode Zibilaren 173.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, familia-harrera idatziz formalizatuko da, herri-erakundearen baimenarekin —tutoretza edo zaintza bere gain izan edo ez izan—, adingabea hartuko duten pertsonen baimenarekin eta, hamabi urte beteta badi-tu, adingabearen beraren baimenarekin. Baldin eta adingabearen gurasoak zeintzuk diren ezaguna bada eta guraso-ahalaz gabetuta ez badaude —edo, hala dagokio-nean, berdin tutorea—, beharrezkoa izango da haiek ere beren baimena ematea, familia-harrera aldi baterako de-nean izan ezik.

2.— Familia-harrera formalizatzeko agiri horretan, honako alderdi hauek egongo dira zehaztuta:

- Beharrezkoak diren baimenak.
- Familia-harreraren mota eta aurreikusitako iraupena.
- Alderdi bakoitzak izango dituen eskubideak eta betebeharrak, eta, batez ere, harrera egin zaion haurra- ren edo nerabearen familiak zenbatez behin egin ahal izango dion ikustaldia; haurrak edo nerabeak jasaten di-tuen edo beste batzuei eragiten dizkien kalteei dago-kienez, herri-erakundeak edo beste arduradun batzuek kalte horiek estaltzeko sistema; adingabearen elika-gaien, hezkuntzaren eta osasun-arretaren gastuak fami-lia hartzaileak bere gain hartzea.
- Herri-erakundeak egin beharreko jarraipenaren edukia, eta familia hartzaileak jarraipen horretan lagun-tzeko konpromisoa.
- Familia hartzaileak hartuko duen diru-ordaina, ha-la badagokio; haurra edo nerabea hartzeak eragindako gastu arruntei, eta hala badagokio bereziei, aurre egi-teko adinakoa izan beharko da diru-ordain hori.
- Harreraren nondik norakoak, hartzaileek profesio-nal gisa diharduten edo harrera bizileku funtzional ba-tean egiten den adieraziz.
- Herri-erakunde babeslearen txostena.

SECCIÓN 6.ª
ACOGIMIENTO FAMILIAR**Artículo 69.**— Definición de acogimiento familiar.

El acogimiento familiar es aquella medida de protección de niños, niñas y adolescentes que, con carácter administrativo o judicial, otorga la guarda de un niño, niña o adolescente a una persona o núcleo familiar con la obligación de velar por él, tenerlo en su compañía, atenderlo, alimentarlo, cuidarlo y procurarle una formación integral a fin de proporcionarle una vida familiar sustitutiva o complementaria de la propia.

En el marco del acogimiento, la familia acogedora asume una función de colaboración con la Administración en el ejercicio de sus funciones de protección.

Artículo 70.— Procedimiento de formalización del acogimiento familiar.

1.— De conformidad con lo previsto en el artículo 173.2 del Código Civil, el acogimiento familiar se formalizará por escrito, con el consentimiento de la entidad pública, tenga o no la tutela o la guarda, el de las personas que reciban a la persona menor de edad y el de ésta si tuviera doce años cumplidos. Cuando fueran conocidos los padres y madres y éstos no estuvieran privados de la patria potestad, o, en su caso, el tutor, será necesario también que presten o hayan prestado su consentimiento, salvo que se trate de un acogimiento familiar provisional.

2.— El documento de formalización del acogimiento familiar a que se refiere el apartado anterior incluirá los siguientes extremos:

- los consentimientos necesarios;
- la modalidad de acogimiento y la duración prevista para el mismo;
- los derechos y deberes de cada una de las partes, y, en particular, la periodicidad de las visitas por parte de la familia del niño, niña o adolescente acogido, el sistema de cobertura por parte de la entidad pública o por otros responsables civiles de los daños que sufra el niño, niña o adolescente o de los que pueda causar a terceros, así como la asunción de los gastos de manutención, educación y atención sanitaria;
- el contenido del seguimiento que realice la entidad pública y el compromiso de colaboración de la familia acogedora en ese seguimiento;
- la compensación económica que, en su caso, vayan a recibir los acogedores, debiendo ser la misma suficiente para dar cobertura a los gastos ordinarios y, en su caso, extraordinarios originados por el acogimiento;
- las características del acogimiento, indicando si se lleva a cabo por acogedores que actúan con carácter profesionalizado o si se realiza en un hogar funcional;
- el informe de la entidad pública de protección.

Agiri hori ministerio fiskalari igorriko zaio.

3.– Baldin eta gurasoek, tutoreak edo hamabi urtekoa baino nagusiagoa den adingabeak ez badute baime-nik ematen, edo familia-harreraren kontra agertzen bada, epaileak bakarrik erabaki ahal izango du familia-harrera ezartzea, betiere adingabearen intereserako. Herri-erakundearen proposamenak aurreko paragrafoan aipatutako alderdi horiek berak zehaztu beharko ditu.

Nolanahi ere, herri-erakundeak badauka, adingabearen intereserako, behin-behineko familia-harrera bat erabakitzea, epaileak ebazpena eman arte iraungo duena.

Herri-erakundeak, behin dagozkion eginbideak egindakoan eta espediente amaitutakoan, epaileari aurkeztu beharko dio proposamena berehala, gehienez ere hamabost eguneko epearen barruan.

71. artikulua.– Familia-harreraren motak.

Familia-harrera, hain zuzen, soila, iraunkorra edo adopzioaren aurrekoa izan daiteke, Kode Zibilaren 173 bis artikulua xedatutakoaren arabera. Era berean, familia-harrera behin-behineko izan daiteke, 173.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

72. artikulua.– Familia-harrera amaitzea.

Haurren edo nerabearen familia-harrera amaitu ahal izateko arrazoiak hauek izango dira:

a) Epaileak epai irmoa ematea.

b) Hartzaileek hala erabakitzea, alde aurretik esku-mena duen herri-administrazioari jakinarazita.

c) Tutoreak edo guraso-ahala duten gurasoek eskatzea, haurra edo nerabea beren ondoan nahi dutela adierazita.

d) Herri-erakundeak, tutoretza bere gain izan edo ez, administrazio-ebazpenaren bidez hala erabakitzea, haurraren edo nerabearen interesa babesteko beharrezko ditzolako, alde aurretik hartzaileei entzunda.

e) Adingabeak berak eskatzea, betiere hamabi urte beteta baditu.

f) Adingabearen edo hartzailearen heriotza.

Harreraren amaierari buruzko ebazpen judiziala nahitaezkoa da, epaileak berak erabaki duenean harrera hori.

73. artikulua.– Familia hartzaileak.

1.– Eskumena duen herri-administrazioak, familia-harreraren proposamena onartzeko, hartzaile izango diren pertsonen azterketa psikosoziala aintzat hartuko du alde aurretik, eta, azterketa horren arabera, haurraren edo nerabearen beharrezko erantzuteko eta harenganako legezko eginbeharrak betetzeko egokitasuna egiaztatzen duten pertsonen proposamena bakarrik onartuko du.

2.– Haur bat edo nerabe bat hartzea eskatzen duten pertsonen edo familien ezaugarriak baloratzeko orduan,

Dicho documento se remitirá al ministerio fiscal.

3.– Si los padres y madres, el tutor o la persona menor que tuviera doce años cumplidos no consienten o se oponen al acogimiento éste sólo podrá ser acordado por el juez, en interés de la persona menor de edad. La propuesta de la entidad pública contendrá los mismos extremos referidos en el apartado anterior.

No obstante, la entidad pública podrá acordar, en interés de la persona menor de edad, un acogimiento familiar provisional que subsistirá hasta tanto se produzca resolución judicial.

La entidad pública, una vez realizadas las diligencias oportunas y concluido el expediente, deberá presentar la propuesta al juez de manera inmediata y, en todo caso, en el plazo máximo de quince días.

Artículo 71.– Modalidades de acogimiento familiar.

El acogimiento familiar revestirá las modalidades de acogimiento simple, permanente y preadoptivo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 173 bis del Código Civil. Asimismo, el acogimiento familiar podrá tener carácter provisional en virtud de su artículo 173.3.

Artículo 72.– Cese del acogimiento familiar.

El acogimiento familiar del niño, niña o adolescente podrá cesar por las siguientes causas:

a) Por resolución judicial firme.

b) Por decisión de las personas que lo ejercen, previa comunicación de éstas a la administración pública competente.

c) A petición del tutor o de los padres y madres que tengan la patria potestad y reclamen su compañía.

d) Por resolución administrativa de la entidad pública, tenga o no la tutela, cuando lo considere necesario para salvaguardar el interés del niño, niña o adolescente, oídas las personas acogedoras.

e) A petición de la persona menor de edad, siempre que tenga los doce años cumplidos.

f) Por fallecimiento del niño, niña o adolescente o de la persona acogedora.

Será precisa resolución judicial de cesación cuando el acogimiento haya sido dispuesto por el juez.

Artículo 73.– Familias acogedoras.

1.– La administración pública competente sólo aprobará las propuestas de acogimiento a favor de aquellas personas que, mediante un estudio psicosocial previo, acrediten su adecuación para garantizar la cobertura de las necesidades del niño, niña o adolescente y el cumplimiento de las obligaciones legalmente establecidas.

2.– En la valoración de las circunstancias que concurran en las personas o familias que soliciten acoger a

honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, bestek beste:

a) Bizitzeko behar beste baliabide edukitzea eta baliabide horiek egonkorrak izatea.

b) Haurra edo nerabea behar bezala zaintzeko moduko osasun fisiko edo psikikoa edukitzea.

c) Hartzaille izatea eskatzen dutenek ezkontzazko edo egitezko elkarrekin bat osatzen dutela egiaztatzen baldin badute, eskaera egin aurretik gutxienez urtebete inguruan elkarrekin jarraitasunez bizi izana.

d) Familia-bizimodu egonkorra egitea.

e) Familia eta gizarte ingurunea haurraren edo nerabearen integrazioarako egokia izatea.

f) Hartzaille izateko eskaera egiten duten pertsonen historian ez izatea haurrarentzat edo nerabearentzat arriskutsu izan daitekeen gorabeherarik.

g) Jarreretan malgutasuna erakustea, eta egoera berrietarako egokitzeko gaitasuna ere bai.

h) Haurraren edo nerabearen egoeraren zaila ulertzeko gauza izatea.

i) Haurraren edo nerabearen historiari begirunea gordezea, hala berarenari nola familiarenari.

j) Haurraren edo nerabearen eta beraren jatorrizko familiaren arteko harremanak onartzea, eta, hala bada, gogio, baita herri-erakunde eskudunak ezarritako ikustaldi-araubidea ere.

k) Prestakuntzan eta jarraipen teknikoan elkarlanean aritzeko eta konpromisoa hartzeko jarrera baikorra erakustea.

l) Familiako kideek familia-harreraren aldeko jarrera edukitzea.

m) Familia-harrerarako gogoia erakustea, eta, gogo horretan, haurraren edo nerabearen interes gorenari, haren eskubideen babesari eta eskubide horien garapeneren bermeari lehentasuna ematea.

3.- Lurralde historikoetako foru-erakundeek familia hartzaileen zerrenda bat egingo dute, eta eguneratuta eduki beharko dute. Zerrenda horretan adierazita egon beharko da familia horiek harrerarik egin duten inoiz edo harrera egiteko proposamenik egin zaien; eta, harrerarik egin badute, haren emaitza.

4.- Lurralde historikoetako foru-erakundeek informazio-kanpainak eta familia hartzaileak aurkitzeko kanpainak antolatuko dituzte.

74. artikulua.— Familia-harrerari laguntzea eta familia-harrera ikuskatzea.

1.- Haurrak eta nerabeak babesteko lurraldeko zerbitzu espezializatuek laguntza eman behar diete familia hartzaileei, familiaren esparruan hartu dituzten egin-kizunetan aholku emanez eta, harrera-aldia amaitu edo adin-nagusitasunera heldu ondoren ere elkarbizitzak ja-

un niño, niña o adolescente, se tendrán en cuenta, entre otros, los siguientes aspectos:

a) Disponer de medios de vida estables y suficientes.

b) Disfrutar de un estado de salud física y psíquica que garantice la atención normalizada del niño, niña o adolescente.

c) En el caso de que los solicitantes acrediten que constituyen una unión, ya sea matrimonial o de hecho, haber convivido de forma continuada durante aproximadamente un período mínimo de un año inmediatamente anterior a la solicitud.

d) Llevar una vida familiar estable.

e) Disfrutar de un entorno familiar y social favorable a la integración del niño, niña o adolescente.

f) No existir en las historias personales de los solicitantes episodios que impliquen riesgo para el niño, niña o adolescente.

g) Mostrar flexibilidad en las actitudes y adaptabilidad a situaciones nuevas.

h) Comprender la dificultad inherente a la situación del niño, niña o adolescente.

i) Respetar la historia personal y familiar del niño, niña o adolescente.

j) Aceptar las relaciones entre el niño, niña o adolescente y su familia de origen y, en su caso, el régimen de visitas establecido por la autoridad pública competente.

k) Mostrar una actitud positiva de colaboración y compromiso en la formación y el seguimiento técnico.

l) Compartir entre los miembros de la unidad familiar una actitud favorable al acogimiento.

m) Manifestar una motivación al acogimiento familiar en la que prevalezcan el interés superior del niño, niña o adolescente y la protección de sus derechos en orden a garantizar su desarrollo.

3.- Los órganos forales de los territorios históricos crearán y mantendrán actualizada una lista de familias acogedoras en la que se indicará si han realizado algún acogimiento, o si se les ha propuesto realizarlo; y en caso de existir un acogimiento previo, el resultado de éste.

4.- Los órganos forales de los territorios históricos organizarán campañas informativas y de captación de familias acogedoras.

Artículo 74.— Apoyo y supervisión del acogimiento familiar.

1.- Los servicios territoriales especializados de protección a la infancia y adolescencia deberán prestar apoyo a las familias acogedoras tanto para asesorarles en el ejercicio de las funciones que asumen en el marco familiar como para orientarles y, en su caso, ayudarles

rraitu egiten duenean, orientazioa eta, hala badagokio, laguntza eskainiz.

2.– Haurrak eta nerabeak babesteko lurraldeko zerbitzu espezializatuek ikuskatu egin beharko dituzte, aldika-aldika, eraturako familia-harrerak, haurren edo nerabeen beharrezan eta interes gorenaren arabera egiten ari diren zehazte aldera.

3.– Familia batean hartutako adingabeari buruz erabakiak hartzeko lurraldeko zerbitzu espezializatuek ezartzen dituzten prozeduretan, entzun egin beharko zaie interesatu guztiei, batez ere familia biologikoari, familia hartzaileari eta, nahikoa ezagumen badu, haurrari edo nerabeari berari.

7. ATALA EGOITZA-HARRERA

75. artikulua.– Egoitza-harreraren definizioa.

Egoitza-harrera ordezeko zaintza-neurri bat da, Administrazioak edo epaileak erabakitakoa, eta helburua du beharrezan material eta afektiboak nahiz hezkuntza arlokoak familiaren baitan –aldi baterako behintzat– bete ezin dituzten haur eta nerabeei arreta integrala ematea egoitza batean.

76. artikulua.– Administrazioak egoitza-harreraren arloan jarduteko printzipioak.

1.– Eskumena duen herri-administrazioak haur edo nerabe batentzat egoitza-harrera erabakitzen duenean, barneratze-aldia ahalik eta laburrena izan dadin saiaturko da –salbu eta haurraren edo nerabearen intereserako besterik komeni bada–; hala saiaturko da batez ere lehenengo haurtzaroan, hala haurra edo nerabea familia biologikora itzul dadin laguntzarren, nola hari familia-harrera, tutoretza arrunta, adopzioa edo emantzipazioa ahalbidetzarren. Egoitza-harrerak irauten duen artean, zaintzaren ardua haurra edo nerabea hartu duen egoitzaren zuzendariari dagokio, edo halakorik ezean, egoitza horren arduradunari.

2.– Haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen herri-administrazioek, egoitza-harreraren neurriak gauzatzeko aldera, lankidetzaren hitzarmen edo itunak egin ahal izan dituzte familia-integratzaile erakunde laguntzaileekin, baldin eta hitzarmen edo itun horiek adingabeek parte hartzeko sistemak kontuan hartzen badituzte, betiere, herri-administrazioen ikuskaritza-pean. Neurri horiek horrela gauzatzeko ez du esan nahi titularitatea eta erantzukina erakunde laguntzailearen esku lagatzen direnik.

77. artikulua.– Harrera-egoitzei baimena ematea eta haiek erregistratzea, ikuskatzea eta homologatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan haurrentzako eta nerabeentzako dauden harrera-egoitzak, betiere, Gizarte

cuando finalice el período de acogimiento o cuando la convivencia prosiga una vez alcanzada la mayoría de edad.

2.– Los servicios territoriales especializados de protección a la infancia y adolescencia deberán proceder, con carácter periódico, a la supervisión de los acogimientos familiares constituidos, a fin de determinar si se desarrollan ajustándose a las necesidades y al interés superior del niño, niña o adolescente acogido.

3.– En el marco de los procedimientos de decisión que apliquen los servicios territoriales especializados con respecto a una persona menor de edad que se encuentra en acogimiento familiar, se oír a todas las personas interesadas, en particular a la familia biológica, a la familia acogedora y al niño, niña o adolescente cuando tenga suficiente juicio.

SECCIÓN 7.ª ACOGIMIENTO RESIDENCIAL

Artículo 75.– Definición de acogimiento residencial.

El acogimiento residencial es una medida alternativa de guarda, de carácter administrativo o judicial, cuya finalidad es ofrecer una atención integral en un entorno residencial a niños, niñas y adolescentes cuyas necesidades materiales, afectivas y educativas no pueden ser cubiertas, al menos temporalmente, en su propia familia.

Artículo 76.– Principios de actuación administrativa en el ámbito del acogimiento residencial.

1.– La administración pública competente, cuando acuerde el acogimiento residencial de un niño, niña o adolescente, procurará que el período de internamiento sea lo más breve posible, salvo que convenga al interés de la persona menor de edad, con objeto de favorecer el retorno a la familia biológica, el acogimiento familiar, la tutela ordinaria, la adopción o la emancipación, principalmente en la primera infancia. El ejercicio de la guarda mediante acogimiento residencial recae en el director o directora o, en su defecto, en la persona responsable del centro donde sea acogido el niño, niña o adolescente.

2.– Las administraciones públicas competentes en materia de protección a la infancia y adolescencia, para llevar a cabo las medidas de acogimiento residencial, podrán establecer convenios o acuerdos de colaboración con entidades colaboradoras de integración familiar donde se contemplen los sistemas de participación de las personas menores, bajo su directa supervisión, sin que ello suponga la cesión de titularidad y responsabilidad derivada de dicha ejecución.

Artículo 77.– Autorización, registro, inspección y homologación de centros residenciales.

Los centros de acogimiento residencial para niños, niñas o adolescentes situados en el territorio de la Co-

Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legean eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritako baimen, erregistro, homologazio eta ikuskaritza erregimenen pean egongo dira.

Zehatz esanda, aplikatzekoak zaizkien legeen eredu-
ra eratuko dira egoitza horiek, eta beren estatutuetan
edo arauetan adingabeei babes ematea agertuko da xedatuz,
eta esleitzen zaizkien eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren bitarteko materialak eta ekipo multidiziplinarrak eduki beharko dituzte beti.

Herri-erakundeek egoitza horiek beren eginkizunetan zer muga izango dituzten adierazi behar dute, eta egoitza horiek beti egongo dira herri-erakundeen jarraitbideen, ikuskaritzaren eta kontrolaren pean.

78. artikulua.— Harrera-egoitzei dagozkien arauak.

1.— Eusko Jaurlaritzak, gizarte-gaietan eskumena duen sailaren bitartez, erregelamendu bidez zehaztuko du, azken xedapenetako bigarrenen ezarritakoari jarraituz, era bateko eta besteko egoitzei eskatu ahal izango zaizkien betekizunak, direla bitarteko materialei dagozkienak, eginkizunei dagozkienak edo langileei dagozkienak. Gainera, berariaz zehaztu beharko ditu egoitza horietako erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharrak, eta egoitza bakoitzean barne-araudi bat edukitzeko betebeharra ere bai, egoitzaren ezaugarrietara eta egoitzaren hezkuntza-egitasmora ongi egokitu.

2.— Aurreko idatz-zatiak aipatzen duen erregelamendu horrek egoitza-harrera egiteko egongo diren egoitza-motak zehaztuko ditu, irizpide batzuei jarraituta; hala nola, hartuko diren haurren eta nerabeen beharri-
zanak, eskainiko zaizkien arreta-ereduak, edo egoitzen egituren neurriak. Horrez gain, zaindu behar dituzten adingabeek jokabide bereziki nahasgarriak dituztenean —eta, ondorioz, beren buruari edo besteei kalte edo galera larriak eragiteko arriskua dagoenean— egoitzek eduki behar dituzten hezkuntza, terapia eta segurtasun baliabideen ezaugarriak arautuko ditu. Direlako egoitzen gainean eskumena duten foru-administrazioek zorrozki kontrolatuko dituzte kasu horiek, bai eta adingabeen fiskaltzek ere.

3.— Aurreko paragrafoetan aipatutako arau horiek Euskal Autonomia Erkidegoan dauden haur eta nerabeentzako harrera-egoitza guztietan aplikatuko dira, diren publikoak edo pribatuak.

79. artikulua.— Harrera-egoitzak ikuskatzea.

1.— Adingabeak babesteko eskumena duten herri-administrazioek gutxienez sei hilabeteen behin ikuskatu beharko dituzte harrera-egoitzak, bai eta egoerak eskatzen duen guztietan ere.

munidad Autónoma del País Vasco deberán ajustarse al régimen de autorización, registro, homologación e inspección previsto en la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, y sus disposiciones de desarrollo.

En particular, estos centros estarán constituidos conforme a las leyes que les sean aplicables. En sus estatutos o reglas figurará como fin la protección de personas menores de edad y deberán disponer siempre de los medios materiales y equipos pluridisciplinarios necesarios para el desarrollo de las funciones encomendadas.

La entidad pública deberá señalar las limitaciones que procedan respecto de la actuación de los centros de acogimiento residencial, los cuales estarán siempre sometidos a las directrices, inspección y control de aquélla.

Artículo 78.— Normativa reguladora de los centros residenciales.

1.— El Gobierno Vasco, a través del departamento competente en materia de asuntos sociales, determinará reglamentariamente, de conformidad con lo establecido en la disposición final segunda, los requisitos materiales, funcionales y de personal exigibles a los diferentes tipos de centros, haciendo expresa referencia a los derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales y a la necesaria existencia en cada centro de un reglamento de régimen interior que se ajuste a las particularidades del centro y a su proyecto educativo.

2.— El desarrollo reglamentario al que alude el apartado anterior determinará los diferentes tipos de centros de acogimiento residencial en función de criterios diversos, como las necesidades de los niños, niñas y adolescentes atendidos, los modelos de atención o el tamaño de las estructuras. En particular, regulará las características que deberán reunir los centros, en términos de recursos educativos, terapéuticos o de seguridad, en aquellos casos en los que deban atender a personas menores de edad que presenten conductas particularmente disruptivas que supongan un riesgo evidente de daños o de perjuicios graves a sí mismos o a terceros. Tales supuestos serán objeto de un control especialmente riguroso tanto por parte de las administraciones forales de las que dependen como por parte de las fiscalías de menores.

3.— La normativa mencionada en los apartados anteriores será de aplicación a todos los centros residenciales para niños, niñas y adolescentes situados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, independientemente de su titularidad pública o privada.

Artículo 79.— Inspección de los centros residenciales.

1.— Las administraciones públicas competentes en materia de protección de personas menores de edad deberán realizar la inspección de los centros residenciales al menos una vez al semestre y, en todo caso, siempre que así lo exijan las circunstancias.

2.– Era berean, ministerio fiskalak, Kode Zibilaren 174. artikulua ezarritakoaren arabera, haurrak eta nerabeak hartzeko egoitza guzti-guztiak jagon beharko ditu.

80. artikulua.– Haur eta nerabeek harrera-egoitzetan edukiko dituzten eskubideak eta betebeharrak.

1.– Goragoko 78. artikuluan aipatutako erregelamenduan, harrera-egoitzetan harrera egiten zaien haurren eta nerabeen eskubideak eta betebeharrak arautuko dira.

2.– Harrera-egoitza batean harrera eman zaien haurrek eta nerabeek eskubide hauek edukiko dituzte, beti:

a) Beren eskubideei eta betebeharrei buruz informazioa jasotzea.

b) Bereizkeriarik gabe zainduak izatea (dela jaiotza, adin, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijio, sineskera eta ideologiagatik edo beste edozein egoera edo ezaugarri pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik bereizkeriarik eragin gabe, alegia), eta, orobat, beren jatorria errespetatuz eta berek dakarten kultura edo erlijio ondarea gordetzeko laguntasuna emanaz zainduak izatea.

c) Eguneroko bizitzako beharrian oinarritzekoak beteta izatea, adingabearen garapen pertsonal integrala bideratu ahal izateko.

d) Nortasuna egokiro garatzeko behar dituzten zerbitzu guztiak erabili ahal izatea, lehentasuna emanaz beti zerbitzua komunitatean bertan jasotzeari, zerbitzu arrunten sarearen bitartez.

e) Eguneroko bizitzan jarduerarako, aisialdirako eta lo egiteko tarte orekatuak edukitzea.

f) Harrera-egoitzako langileen aldetik eta gainerako egoiliarren aldetik tratu egokia jasotzea.

g) Bakoitzaren espedientean ageri diren datuak isilpean edukitzea eta datu horiek edonori ez jakinaraztea.

h) Senitartekoeekin eta berentzat garrantzitsuak diren pertsonekin harremanak edukitzea, betiere hori haurren edo nerabearen interesaren aurkakoa ez bada, bai eta ikustaldiak egoitzan bertan edo kasuan-kasuan zehaztutako lekuan jasotzea.

i) Egoitzan beren intimitatea eta gauzak errespetatuak izatea; orobat beren gutunak bortxatuak ez izatea, eta telefono-deiak pribatuan jaso eta egin ahal izatea, baldin eta horrek haien babesaren arriskuan jartzen ez bada.

j) Barne-araudian idatzitako elkarbizitza-arauek egin eta aldatzeko eginkizunean parte hartzea, bai eta egoitzako jarduera programatzeko eta garatzeko eginkizunean ere parte hartzea.

2.– Así mismo, el ministerio fiscal, de acuerdo con lo establecido en el artículo 174 del Código Civil, deberá ejercer su vigilancia sobre todos los centros residenciales destinados al acogimiento de niños, niñas y adolescentes.

Artículo 80.– Derechos y obligaciones de los residentes.

1.– El desarrollo reglamentario al que alude el artículo 78 regulará los derechos y obligaciones de los niños, niñas y adolescentes en su calidad de residentes.

2.– En todo caso, los niños, niñas y adolescentes en acogimiento residencial tendrán derecho a:

a) Ser informados de sus derechos y obligaciones.

b) Ser atendidos sin discriminación por razón de nacimiento, edad, raza, sexo, estado civil, orientación sexual, aptitud física o psíquica, estado de salud, lengua, cultura, religión, creencia, ideología o cualquier otra condición o circunstancia personal, económica o social, respetando sus orígenes y favoreciendo la conservación de su bagaje cultural y religioso.

c) Tener cubiertas las necesidades básicas de la vida cotidiana que permitan su desarrollo personal integral.

d) Acceder a los servicios necesarios para atender todas las necesidades que exige el adecuado desarrollo de su personalidad, siendo prioritaria siempre su atención en la comunidad a través de la red de servicios ordinarios.

e) Disfrutar en su vida cotidiana de unos períodos equilibrados de actividad, ocio y sueño.

f) Recibir un trato digno por parte del personal del centro y de los demás residentes.

g) Ver respetada la confidencialidad de los datos que constan en su expediente individual y el deber de reserva en su utilización.

h) Mantener relaciones con sus familiares y personas significativas, siempre que no sea contrario a su interés, y recibir visitas en el centro o en otros lugares que se determinen en cada caso.

i) Ver respetada la intimidad y sus pertenencias individuales en el centro, así como la inviolabilidad de su correspondencia y el derecho a recibir y hacer llamadas telefónicas en privado, salvo que ello ponga en riesgo su protección.

j) Participar en la elaboración o modificación de las normas de convivencia contenidas en el reglamento de régimen interno, así como en la programación y desarrollo de las actividades del centro.

k) Informazioa jasotzea, beren adimen mailari eta gaitasunari egokitutako hizkeran, egoitzan erreklamazioak aurkezteko dauden prozedurez. Orobat honako hauei kezak aurkezteko duten aukeraz: ministerio fiskalari, haurren edo nerabeen defendatzaileari, ikuska-pen-zerbitzuei edo haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duten administrazioei.

l) Une oro jakitea zer lege-egoeratan dauden.

m) Bakoitzarentzat egindako esku-hartze plan bat edukitzea, eta aldika-aldika plan hori lantzen eta ebaluatzen parte hartu ahal izatea.

n) Berei eragiten dizkieten erabaki garrantzitsuetan esateko dutena entzun dakiela; hamabi urte baino gehiago dituztenean, beti, eta bete gabe dituztenean, nahikoa ezagumen badute.

ñ) Egoitza ebaluatzeko eta ikuskatzeko prozeduretan parte hartzea.

o) Prestakuntzaz eta esperientziaz kualifikatuta dauden langileek zainduak izatea.

p) Haien zainketan eta haiei dagozkien erabakietan gurasoek ere parte hartzea, betiere haien interesen kontrakoa ez bada.

q) Haien anaia, neba, arreba edo ahizpengandik ez bereiztea, eta egoitza batean elkarrekin egotea, betiere hori haien interesen kontrakoa ez bada.

3.- Harrera-egoitza batean harrera eman zaien haurrek eta nerabeek, egoiliarak diren aldetik, betebeharrak edukiko dituzte:

a) Egoitzako funtzionamendu eta elkarbizitza arauak errespetatu eta betetzea.

b) Egoitzan lan egiten duten edo bizi diren pertsona guztien duintasuna eta eginkizuna errespetatzea.

c) Beren prestakuntzarako jarduerak, eskolako jarduerak, lanekoak edo zeinahi eratakoak egitea.

d) Haien eskura jartzen diren instalazio eta baliabide materialak era egokian erabiltzea.

e) Ezartzen zaizkien heziketa-neurri zuzengarriak betetzea, hurrengo artikuluan xedatutakoaren eredura.

f) Gaixoaren Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoren arloko Eskubide eta Betebeharrak Arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Lege Oinarritzaileko ezarritakoari jarraituz, beharrezkoak diren osasun azterketa eta -proba guztiak egitea, bai adingabeak berak bai egoitzan bizi diren edo lan egiten duten gainerako pertsonen duten osasun-eskubidea bermatzeko.

81. artikulua.- Heziketa-neurri zuzengarriak.

1.- Aurreko artikuluan ezarritako betebeharrak bete ezean, heziketa-neurri zuzengarriak ezarriko dira. Neurri horien edukia eta eginkizuna heztea izango da, eta ezingo dute ezarri, ez zuzenean ez zeharka, ez gortuz-zigorrik, ez elikagaiak ukatzerik, ez senitartekoan ikustaldia jasotzeko eskubidea kentzerik, ez ahozko na-

k) Ser informados, en un lenguaje adaptado a su nivel y capacidad de entendimiento, de los procedimientos de reclamación existentes en el centro y de la posibilidad de manifestar una queja ante el ministerio fiscal, el defensor o defensora de la Infancia y la Adolescencia o los servicios de inspección, o ante las administraciones competentes en materia de protección.

l) Conocer su situación legal en todo momento.

m) Contar con un plan de intervención individualizada y participar en su elaboración y evaluación periódicas.

n) Ser oídos en las decisiones de trascendencia que les afecten si son mayores de doce años, en todo caso, y si tuvieren juicio suficiente, también los niños, niñas y adolescentes que todavía no hayan alcanzado dicha edad.

ñ) Participar en las evaluaciones y procedimientos de inspección de los que sea objeto el centro.

o) Ser atendidos por personal cualificado por su formación y experiencia.

p) Contar con la participación de sus padres y madres en su atención y en las decisiones que les conciernen, siempre que no sea contrario a su interés.

q) No ser separado de sus hermanos o hermanas, permaneciendo todos juntos en el mismo centro, siempre que no sea contrario a su interés.

3.- Los niños, niñas y adolescentes, en su calidad de residentes de un centro de acogimiento, tienen las siguientes obligaciones:

a) Respetar y cumplir las normas de funcionamiento y convivencia del centro.

b) Respetar la dignidad y función de cuantas personas trabajen o vivan en el centro.

c) Desarrollar las actividades escolares, laborales o cualesquiera otras orientadas a su formación.

d) Hacer un uso adecuado de las instalaciones y de los medios materiales que se pongan a su disposición.

e) Cumplir las medidas educativas correctoras impuestas, según lo dispuesto en el artículo siguiente.

f) Someterse, de conformidad con lo establecido en la Ley 41/2002, de 14 de noviembre, Básica Reguladora de la Autonomía del Paciente y de Derechos y Obligaciones en materia de Información y Documentación Clínica, a los reconocimientos y pruebas médicas que sean precisos en garantía del derecho a la salud de la propia persona menor de edad y de las demás personas que viven o trabajan en el centro.

Artículo 81.- Medidas educativas correctoras.

1.- El incumplimiento de las obligaciones previstas en el artículo anterior dará lugar a la aplicación de medidas educativas correctoras. Estas medidas deberán tener contenido y función esencialmente educativos y no podrán implicar, directa o indirectamente, castigos corporales, privación de la alimentación, privación del de-

hiz idatzizko komunikazioetan esku-hartzerik, ez nahitaezko hezkuntzarako, ez eta osasun-arretarako eskubidea kentzerik ere; ezta adingabeen duintasunaren aurkako erasorik ere. Kode Zibilak 154 eta 268. artikuluetan gurasoei edo tutoreei ezartzen dien zuzentzeko eginkizunean oinarritzen dira neurri hauek.

2.– Heziketa-neurri zuzengarriak ezartzea eragin dezaketen jokabideak, neurri horien edukia eta neurriok ezartzeko jarrabideak, horiek guztiak, zentroen erregelamendu-garapenaren esparruan arautu beharko dira –78. artikuluan aipatzen da garapen hori–. Arau horietan adingabeen eskubide hauek aurreikusi beharko dira: entzunak izateko eskubidea, frogak aurkezteko eskubidea, eta berek izendatutako pertsonen aholkua jasotzeko eskubidea. Ezarritako neurriak, bestalde, erregistro batean idatziko dira, bai neurria ezartzea eragin zuen jokaera edo gertaera bai neurriak aplikatzeko orduan izandako inguruabarrak zehaztuta.

3.– Heziketa-neurri zuzengarrien artean, garrantzi berezikiotzat joko dira hauek: iraindutako pertsonari barkamena eskatzea, ondasunak itzultzea, eta eragindako kalteak konpontzea.

4.– Neurriok, nolakoak diren, heziketa-taldea osatzen duten profesioaletako edozeinek ezarri ahal izango ditu, edo, jokabide eta gertakari larriak izan badira, egoitzaren zuzendariak edo egoitzaren arduradun-eginkizunak betetzen dituenak ezarri beharko ditu. Xedapen hau gorabehera, betiere neurriak hartu ahal izango dira berehala, pertsonen edo gauzei kalterik ez eragiteko.

8. ATALA
ADOPZIOA

82. artikulua.– Adopzioaren eraketa.

1.– Adopzioa epailearen ebazpenaren bidez eratuko da, eta ebazpen horretan, beti, adoptatutako haurren edo nerabearen interesa eta adoptatzaileak edo adoptatzaileek guraso-ahala erabiltzeko duten egokitasuna hartuko dira kontuan.

2.– Adopzio-espeditente bat aurrera eramateko behar diren administrazio-jarduketak, edo, hala badagokio, nazioarteko adopzioarako behar direnak, indarrean dagoen zuzenbide-antolamenduan aurreikusitako araudia-ri jarraituz egingo dira beti.

3.– Adopzio-espeditentea hasteko, beharrezkoa da adopzioa eskatzen dutenen auzotasunari dagokion foru-diputazioak –haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duenez gero– proposamen bat egitea adoptatzailearen edo adoptatzaileen alde, baldin eta alde aurretik guraso-ahala egikaritzeko egokitasuna aitortu bazaie. Ez da proposamen horren beharrik izango Kode Zibilaren 176.2 artikuluan aurreikusitako egoerak gertatzen badira. Proposamenak betekizun batzuk be-

recho de visita de los familiares, intervención de las comunicaciones orales o escritas, privación del derecho a la educación obligatoria y de asistencia al centro escolar o privación del derecho a la asistencia sanitaria tampoco podrán atentar contra su dignidad. Se fundamentan en la función correctora que el Código Civil, en sus artículos 154 y 268, hace recaer en los padres y madres o tutores.

2.– Las conductas que podrán ser objeto de medidas educativas correctoras, el contenido de estas últimas y las pautas de aplicación de las mismas deberán ser objeto de regulación en el marco del desarrollo reglamentario de centros a que se refiere el artículo 78. En dicha regulación deberá preverse el derecho de la persona menor de edad a ser oída, a aportar pruebas y a ser asesorada por la persona que designe, así como el registro de las medidas impuestas, con indicación de la conducta o hecho que las origine y de las circunstancias de su aplicación.

3.– Entre las medidas educativas correctoras se otorgará especial relevancia a la petición de excusas a la persona ofendida, la restitución de los bienes o la reparación de los daños.

4.– En función de su naturaleza, las medidas podrán ser aplicadas por cualquiera de los profesionales que integran el equipo educativo, o cuando correspondan a conductas o hechos de gravedad, quedar reservadas al director del centro o a quien ejerza funciones de responsable del mismo. Esta disposición se entenderá sin perjuicio de las medidas que, con carácter provisional, deban adoptarse de forma inmediata a fin de evitar daños en las personas o en las cosas.

SECCIÓN 8.ª
ADOPCIÓN

Artículo 82.– Constitución de la adopción.

1.– La adopción se constituye por resolución judicial, que tendrá en cuenta siempre el interés del niño, niña o adolescente adoptado y la idoneidad del adoptante o adoptantes para el ejercicio de la patria potestad.

2.– Las actuaciones administrativas requeridas para la promoción de un expediente de adopción, o, en su caso, de adopción internacional, se ajustarán en todo caso a la regulación contemplada en el ordenamiento jurídico vigente.

3.– Para iniciar el expediente de adopción es necesaria la propuesta de la diputación foral del lugar de vecindad de los solicitantes, en su calidad de entidad competente en materia de protección a los niños, niñas y adolescentes, a favor del adoptante o adoptantes que previamente hayan sido declarados idóneos para el ejercicio de la patria potestad, salvo en las circunstancias previstas en el artículo 176.2 del Código Civil. Dicha propuesta debe reunir una serie de requisitos, regula-

te behar ditu: Prozedura Zibilaren Legearen 1829. artikuluan eta hurrengoetan araututakoak, hain zuzen.

83. artikulua.— Familia adoptatzaileak.

1.— Haurrak eta nerabeak seme-alabatzat hartzeko egokitasuna behar da, eta egokitasun horrek betekizun hauek eskatzen ditu:

a) Bizitzeko behar beste baliabide edukitzea, eta baliabide horiek egonkorrak izatea.

b) Haurraren edo nerabearen arreta bermatzeko moduko osasun-egoera fisiko eta psikikoa izatea.

c) Adopzioa eskatzen dutenek ezkontzazko edo egitezko elkarte bat osatzen dutela egiaztatzen baldin badute, eskaera egin aurretik gutxienez bi urtetan elkarrekin jarraitasunez bizi izana.

d) Familia-bizimodu egonkorra egitea.

e) Familia eta gizarte ingurua haurraren edo nerabearen integrazioarako egokia izatea.

f) Adopzioa eskatzen duten pertsonen historian ez izatea haurrarentzat edo nerabearentzat arriskutsu izan daitekeen gorabeherarik.

g) Jarreretan malgutasuna erakustea, eta egoera berrietara egokitzeko gaitasuna ere bai.

h) Haurraren eta nerabearen historia pertsonala eta familiarra errespetatzea eta onartzea.

i) Lankidetzarako eta konpromisorako jarrera baiko-rra agertzea.

j) Familia-unitateko kide guztiek adopzioaren aldeko jarrera edukitzea.

k) Adopziogaiaren garapen egokirako mugapena izan daitekeen adinik ez edukitzea adoptatzaileak edo adoptatzaileek.

l) Adopzioa egiteko gogoia erakustea, eta, gogo horretan, haurraren edo nerabearen interes gorenari, haren eskubideen babesari eta eskubide horien garapeneren bermeari lehentasuna ematea.

Egokitasun-ziurtagiriak hiru urterako balioa izango du, baina edozein unetan berrikusi ahal izango da adopzioa egiteko gogoia agertzen dutenen egoera pertsonala edo familiarra aldatu egiten bada.

2.— Erregelamendu bidez arautuko da foru-diputazioek adopzioaren arloan jarraitu behar duten prozedura.

84. artikulua.— Informazioa eskuratu ahal izatea.

1.— Herri-erakundeetan edo erakunde laguntzaileetan zerbitzu ematen duten pertsonak isilpean gorde behar harko dituzte adoptatuengandik eskuratutako informazioa eta adoptatuen seme-alabatasunari buruzko datuak.

2.— Aurreko hori gorabehera, eta haurrek eta nerabeek beren guraso biologikoak nor diren ezagutzeko duten eskubidea bermatze aldera, lege honetako 11. arti-

dos en el artículo 1829 y siguientes de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 83.— Familias adoptantes.

1.— Serán requisitos de idoneidad para la adopción de niños, niñas y adolescentes:

a) Disponer de medios de vida estables y suficientes.

b) Disfrutar de un estado de salud física y psíquica que garantice la atención normalizada del niño, niña o adolescente.

c) En el caso de que los solicitantes acrediten que constituyen una unión matrimonial o de hecho, haber convivido de forma continuada durante dos años con anterioridad a la solicitud.

d) Llevar una vida familiar estable.

e) Disfrutar de un entorno familiar y social favorable a la integración del niño, niña o adolescente.

f) No existir en las historias personales de los solicitantes episodios que impliquen riesgo para el niño, niña o adolescente.

g) Mostrar flexibilidad en las actitudes y adaptabilidad a situaciones nuevas.

h) Respetar y aceptar la historia personal y familiar del niño, niña o adolescente.

i) Mostrar una actitud positiva de colaboración y compromiso.

j) Compartir entre todos los miembros de la unidad familiar una actitud favorable a la adopción.

k) Contar el o los adoptantes con una edad que, previsiblemente, no pueda suponer una limitación para el conveniente desarrollo del adoptando.

l) Manifestar una motivación a la adopción en la que prevalezcan el interés superior del niño, niña o adolescente y la protección de sus derechos en orden a garantizar su desarrollo.

El período de validez del certificado de idoneidad será de tres años, sin perjuicio de que sea revisable en cualquier momento si cambian las circunstancias personales o familiares de las personas que se ofrecen para la adopción.

2.— Reglamentariamente se regulará el procedimiento de actuación que deberán seguir las diputaciones forales en materia de adopción.

Artículo 84.— Acceso a la información.

1.— Las personas que presten servicios en las entidades públicas o en las entidades colaboradoras están obligadas a guardar secreto de la información obtenida y de los datos de filiación de los adoptados.

2.— Sin perjuicio de lo anterior, y en garantía del derecho de los niños, niñas y adolescentes a conocer la identidad de su padre y madre biológicos, de confor-

